



EIBARKO UDALA

**EIBARKO HAURTZARO, NERABEZARO ETA
FAMILIA I PLANA**

2018 – 2021

Eibarko Udala

1. SARRERA	5
1.1. Planaren testuingurua.....	6
1.2. Marko Arauemailea	7
1.3. Taldea	10
2. LANEKO PROZESUAREN METODOLOGIA	11
2.1. Lan metodologia	12
2.2. Agente eta zerbitzu parte-hartzaileak.....	13
3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK	14
3.1. Haurtzaroaren eta familiaren egoera Eibarren.....	15
3.2. Erabilgarri dauden baliabideen balioespena	26
3.3. Hobekuntza Eremuak. Beharrak eta Kezkak.....	32
3.4. Haurtzaroa, nerabezaroa eta familia: ERRONKAK	33
4. PLANAREN MISIOA, HELBURUAK ETA OINARRIAK.....	35
4.1. Planaren misioa.....	36
4.2. Planaren helburu orokorrak.....	36
4.3. Planaren Oinarrizko eta Zeharkako oinarriak.....	36
5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK	38
5.1. Ardatz Estrategikoak eta Jarduera-Lerroak	39
5.2. Ardatz bakoitzeko jarduera proposamenak.....	41
5.2.1. 1. ARDATZA. Haur, nerabe eta familien zailtasunak saihesteko komunitate esku-hartzea sendotu	41
5.2.2. 2. ARDATZA. Arrisku egoeran eta babes-gabezia dauden familia eta haurtzaroaren esku-hartzea eta arreta sustatu.....	44
5.2.3. 3. ARDATZA. Udalerrian erabilgarri dauden baliabideen optimizazioa	48
5.3. Jarduera Proposamenen xehetasunak	53
5.3.1. 1 Ardatza: Prebetzioa. Jarduera-lerroa 1.1. Haur eta gazteen zaintzan, arretan eta hezkuntzan familiei laguntza eman	53
5.3.2. 1 Ardatza: Prebetzioa. Jarduera-lerroa 1.2. Haur, nerabe eta gazteei heldutze-prozesuan lagundu	56
5.3.3. 1 Ardatza: Prebetzioa. Jarduera-lerroa 1.3. Haurtzaro, nerabezaro eta familien beharren inguruan komunitatea sentikortu.....	63
5.3.4. 2 Ardatza: Esku-hartzea. Jarduera-lerroa 2.1. Familekin arreta eta esku-hartzea indartu	67
5.3.5. 2 Ardatza: Esku-hartzea. Jarduera-lerroa 2.2. Arriskuan eta babesgabezia arinean edo esanguratsuan dauden adingabeen arreta sendotu	74
5.3.6. 3 Ardatza: Baliabideak optimizatu. Jarduera-lerroa 3.1. Zerbitzu eta baliabideen kalitatea hobetu elkarlanaren, koordinazioaren eta sareko lanaren bitartez	79




Aurkibidea

5.3.7.	3 Ardatza: Baliabideak optimizatu. Jarduera-lerroa 3.2. Udalerrian haurtzaroa, nerabezaroa eta familiari laguntza emateko erabilgarri dauden baliabideak eta zerbitzuak zabaldu	86
5.3.8.	3 Ardatza: Baliabideak optimizatu. Jarduera-lerroa 3.3. Haurtzaro, nerabezaro eta familia plana ebaluatu	90
5.4.	Proposamenen eta Helburuen matrizea	92
5.5.	Proposamenen eta Publikoaren matrizea adinez sailkatua	98
5.6.	Urteroko Proposamen eta Helburuen matrizea	101
5.7.	Proposamenen eta Emaizaren adierazleen matrizea	105
6.	PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	109
6.1.	Koordinazioa: Gizarte Zerbitzuetako Komisio Teknikoa.....	110
6.2.	I. Planaren ebaluazioa.....	110

Aurkibidea

3.1 Irudia	Eibarko haur eta gazteen biztanleriaren bilakaera (zenbakitan), 2011-2016.....	18
3.2 Irudia	Eibarko biztanleria osoaren eta atzerrikoaren bilakaera, 2011-2016.....	19
3.3 Irudia	Eibar eta Gipuzkoako 16 urtez azpiko biztanleria sexuz eta jaiotze-lekuz bananduta (%), 2011.....	19
3.4 Irudia	Hautzaro eta Familia Arloari dagokionean, adin-txikikoen eta guraso/tutoreen arteko harremaneta sortzen diren zailtasunak handitu direla uste al duzu?.....	23
3.5 Irudia	Hautzaro, nerabezaro eta familien behar-sozial nagusiak	24
3.6 Irudia	Batezbesteko hasiera-adinaren bilakaera alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoan, 2002-2012	24
3.7 Irudia	Gizarte-Zerbitzuek jasotako jakinarazpenak Eibarren (zenbakitan), 2011-2016.....	27
3.8 Irudia	Familia esku-hartzeetan Gizarte-Zerbitzuak buruturiko urteroko gastuen banakapena Eibarren, 2016	28
3.9 Irudia	Familia esku-hartzeetan Gizarte-Zerbitzuak buruturiko urteroko gastuaren banakapena hilabeteetan zatituta Eibarren (€), 2016.....	28
3.10 Irudia	Eibarko Gizarte-Zerbitzuek artatu duten biztanleriaren bilakaera Ingurumen Irekiko Hezibide Programaren bitartez (zenbakitan), 2014-2016.....	29
3.11 Irudia	Ingurumen Irekiko Hezibide Programaren bitartez Eibarko Gizarte-Zerbitzuak garaturiko jarduerak izan duen bilakaera (zenbakitan), 2014-2016.....	30
3.1 Grafikoa	Eibarren hautzaroko eta gaztaroko indizeek duten garrantzia, Gipuzkoa (%), 2016	15
3.2 Grafikoa	Eibarko biztanleria-piramidearen bilakaera, 2011-2016.....	16
3.3 Grafikoa	Eibar eta Gipuzkoako haur eta gazte biztanleriaren banaketa, sexuz bananduta (%), 2016.....	17
3.4 Grafikoa	Eibarko immigrazio tasaren (%) eta bilakaeraren (zenbakitan) bilakaera, 2011-2016.....	19
3.5 Grafikoa	Eibarko etxebizitza kopurua gutxienez 25 urtez azpitik dituen seme-alabaren bat bizi dena, 2011.....	20
3.6 Grafikoa	Eibar eta Gipuzkoako familia nukleoen banaketa, nukleo motaren arabera banatuta (%), 2011	20
3.7 Grafikoa	Debabarrena eta Gipuzkoako pobrezia egoera eta eskasi-errealak (%), 2016.....	21
3.8 Grafikoa	Lanik ez duten etxeetan bizi diren adin-txikikoak (0 eta 17 urte bitartekoak) (%), 2014.....	21
3.9 Grafikoa	Eibarren Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen biztanleriaren bilakaera (zenbakitan) eta estaldura-maila (%), 2011-2016	22
3.10 Grafikoa	Eibarren Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskaeren bilakaera (zenbakitan) eta laguntza jasotzen duten bizikidetzak-unitateen bilakaera (%), 2012-2015	22
3.11 Grafikoa	Hautzaroari loturiko zenbait alorretan dagoen batezbesteko kezka	25
3.12 Grafikoa	Hautzaroarekin eta familiarekin loturiko gizarte-errealitateen intzidentziak.....	25
3.13 Grafikoa	Eibarko gizarte-zerbitzuak hobetu edo indartu behar dituen jarduera nagusiak.....	31



1. SARRERA

1. SARRERA

1.1. Planaren testuingurua

Familia lehen mailako funtsezko sare soziala da bizitzako edozein etapatan, eta, beraz, bere funtzioak eta jokabideak gizartea loturik dagoen egiturazko aldaketen isla bezala ezaugarriak aldatuz eboluzionatzen duen erakundea da.

Gaur egun, familia tradizionalarekiko oso bestelakoak diren beste zenbait eredu daude, zeinak beste motatako familia-ereduen barneratze jarraia ekartzen duen (gurasobakarrak, bananduak, adoptatzaileak edo berriz eratuak). Esparru juridikoan, eta bereziki familien laguntzarako politika zehatzen diseinu eta artikulazioaren bitartez, Administrazioa aurrera egiten ari da familiek betetzen dituzten funtzioen gizarte-errentagarritasunaren aitorpenean, familien laguntzarako esku-hartze publikoaren legitimizazio modura.

Eibarko Haurtzaro, Nerabezaro eta Familiaren lehenengo **Plana** errealitate berri honetara egokitzea bilatzen duen ekimena da, haurren eta nerabeen eskubideak bermatuz, eta baita beraien ongizatea ere; haurtzaro bezala ulertuz jaiotza eta hamabi urte bitarteko bizitza epea, eta nerabezaroa hamahiru eta adin-nagusitasunera iritsi arteko bizitza epea. Plan honek haurrak, nerabeak eta euren familiak barneratzen ditu.

Azken urteetan haurtzaro eta nerabezaroaren egoeraren inguruan landu da eta hobekuntza nabarmenak lortu dira, eta **komunitatearen esku-hartzeak** eta **prebentzioak** gako izaten jarraitzen dute abagune-desberdintasunak eragindako desberdintasun sozialak arintzeko.

Udalbatzak paper eta erantzukizun espezifikokoak ditu jarduera honetan, zeinak komunitatearekin duen gertutasunetik, bere kompetentziengatik, izan ere, bere ardura baitira arazoak eta potentzialtasunak, eta bere emate-funtzioengatik eratorriak diren, baliabide-kudeaketaren eta komunitateari bideraturik dauden programen bitartez.

Eibarko Haurtzaroko, Nerabezaroko eta Familiako I. Plana, beraz, Eibarko Udaletxearen helburu estrategiko modura identifikatzen da, eta bereziki, Gizarte-Zerbitzuen Sailarentzat, azken honek Planaren lidergoa izateaz gain, Plana osatzen duten gainontzeko agenteen koordinazioa zaintzeaz arduratu behar duelarik.

1. SARRERA

1.2. Marko Arauemailea

Abenduak 5eko Gizarte-Zerbitzuen 12/2008 Legeak honela definitzen du Euskal Sistemako Gizarte-Zerbitzua: erantzukizun publikoa duen arreta sare artikulatu bat, zeina titulartasun publikoa eta itundutako titulartasun pribatua duten prestazio, zerbitzu eta hornikuntzen bidez integraturik dagoena, bere helburua pertsona, familia eta talde ororen gizarte-integrazioa, autonomia eta ongizatea hobetzea izanik. Horretarako, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-jarduerak garatzen ditu izaera pertsonala duten prestazio eta zerbitzuen bitartez.

Jarduerak arautzen dituen marko arauemaileak honela dio:

1. Autonomia pertsonala eta pertsona-nagusien arreta Sustatzen duen Legearen onespena (2006-12-11). Honen bitartez, abian jartzen dira menpekotasunaren inguruko prestazio ekonomikoak.
2. Gizarte-Zerbitzuen Legearen onarpena, zeinak gizarte-zerbitzuen sistemaren inguruan, bere helburuen inguruan eta erakunde desberdinen konpententzien inguruan hitz egiten duen. (Gizarte-Zerbitzuen 12/2008 Legea, abenduak 5).
3. Sarrerak Bermatu eta gizartean Barneratzen lagutzen duen Legearen onespena, bere helburua prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea eta bazterkeria saihesteko tresnak erregulatzea izanik (18/2008 Legea, abenduak 23).
4. 3/2005 Legea, Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Babesaren ingurukoa. Artikulu desberdinetan zer hartzen den arrisku-egoeratzat definitzen du, Administrazio Publikoaren obligazioak.
5. 1/2004 Lege Organikoa, abenduak 28, Genero-Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei dagokiona.
6. 4/2005 Legea, otsailak 18, EAE-ko Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunerako.
7. 3/2007 Lege Organikoa, martxoak 22, emakume eta gizonezkoen arteko Berdintasun eraginkorrerako.
8. Decreto 230/2011, de 8 de noviembre, por el que se aprueba el instrumento para la valoración de la gravedad de las situaciones de riesgo en los servicios sociales municipales y territoriales de atención y protección a la infancia y adolescencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco (BALORA).
9. MENPEKOTASUNAREN inguruko foru Dekretuak, zeinak balorazioen, prestazio ekonomikoen eta jardueren prozeduraren baremoak erregulatzen dituzten.
10. Sarrerak bermatzen dituen laguntzaren onarpena Gipuzkoako Foru Aldudiaren eskutik (2012-06-19). 14/2016 Foru Dekretua, ekainak 28, Sarrerak bermatzen dituen Laguntza bertan behera geratuko da era mailakatuan.

1. SARRERA

11. 185/2015 Dekretua, urriak 6, Euskal Sistemako Gizarte-Zerbitzuek eskaintzen duten prestazio eta zerbitzuen karterari dagokiona.
12. 2/2016 Legea, apirilak 7, Euskadiko Erakunde Lokalen ingurukoa.

Lege horretako 22. Artikuluan –Gizarte-Zerbitzuen Sistemaren prestazio eta Zerbitzuen Katalogoak- finkatzen duena da lehen-mailako arretarako gizarte-zerbitzuak, hau da, udalerrikoak ondorengoak direla:

- Informazio, balorazio eta diagnostiko zerbitzua
- Etxean bertan laguntzeko zerbitzua
- Esku-hartze psikosozialaren eta gizarte-hezkuntzaren zerbitzua
- Gizarte-zerbitzuen alorrean partaidetzaren sustapenerako eta gizarte-barneratzerako zerbitzua
- Tele-Asistentzia zerbitzua (Eusko Jaurlaritzaren kompetentzia)
- Eguneko-arreta zerbitzua
- Gaueko-arreta zerbitzua
- Ostatu zerbitzua: harrera-etxebizitzak, tutoretzapeko etxebizitzak, tutoretzapeko apartamentuak eta komunitatearen etxebizitzak.

2015eko urriaren 29an urriaren 6ko 185/2015 Dekretua onartzen da, Euskal Sistemak duen Gizarte Zerbitzuko prestazio eta zerbitzuen Karteraren ingurukoa, goian aipatutako kompetentzien zerrenda ezartzen delarik. Eskualde eta eremu mailan (Eibar-Soraluze) honakoak dira eskaintzen diren zerbitzuak:

- Baztertze-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua (eguneko-zentrua eta jangelak). Eskualdea.
- Gaueko harrera-zerbitzua (aterpeak eta neguko-gailuak). Eskualdea.
- Baztertze arriskuan dauden pertsonentzako ostatu/tutoretzapeko etxebizitzaren zerbitzua. Eskualdea.
- Ostatu/harrera-etxebizitza zerbitzua: Larrialdi sozial egoeran daudenen pertsonentzat eta baita etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat. Eibar-Soraluze.
- Adineko pertsonentzako ostatu zerbitzua. Tutoretzapeko apartamentuak. Komunitatearen etxebizitzak. Eibar-Soraluze.

Abenduak 5eko 12/2008 Gizarte-Zerbitzuen Legeak **Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan** barneratzen diren prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea bermatzen du **eskubide unibertsal eta subjektibo** modura, zeinaren betetzea eskatu ahal izango dute, administrazio edo jurisdikzional bidetik, Legeak Euskal Sistemako Gizarte-Zerbitzuen (2012-12-25) unibertsalizaziorako ezartzen duen epea betetzen denean, prestazio edo zerbitzu

1. SARRERA

bakoitzeko sarbiderako Euskal Sistemako Gizarte-Zerbitzuko Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan betebeharrak orokor eta espezifikoki betetzen dituzten pertsona orok.

Eibarko udalerriko gizarte-zerbitzuei dagokionean, honela daude eraturik:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzua: balio eta jakintza-alar anitzeko arreta unitatea da, bere funtzio nagusia lan egiten duen eremuaren barnean gizarte-zerbitzuek artatu ditzaketen behar sozial sentiberen hautematea eta arreta izanik.
- Komunitatearen esku-hartzea: jakintza-alar zabaleko unitatea da sustapen, prebentzio eta arreta funtzioa betetzen duena ondorengo esku-hartze eremuetan: generoen arteko berdintasuna, immigrazioa, adikzioen prebentzioa, adineko pertsonen sustapena, lankidetzak internazionala eta gizarte ekimenarekiko elkarlana.
- Administrazio unitatea: hiritarrei hasierako administrazio laguntza ematen dion unitatea, bertatik, zerbitzu-sozialetara sarbidea lortzen delarik eta administrazio-mailan burutzen diren espediente eta prestazio kudeaketan parte hartzen delarik.

Haurtzarora, Nerabegarora eta Familiara zehatzago bideraturik dauden zerbitzu eta Programak ondorengoak dira:

- Familientzako informazio-, orientazio- eta balorazio-zerbitzua
- Familian esku-hartzeko programa
- Ingurune irekiko hezibide programa
- Izatezko zaintzako diru-laguntza
- Etxeko laguntza-zerbitzua
- Adikzio-arazoak eta interesdun pertsonen arazoa duten pertsona edo/eta familientzako arreta zerbitzua
- Gurasoak Martxan
- Prebentzioa ikastetxeetan
- Prebentzioa aisialdian eta denbora-librean


1. SARRERA

1.3. Taldea

Eibarko gizarte-zerbitzuak, Gizartekintza, honela osatuta daude:

- 4 administrari laguntzaile
- 4 oinarrizko gizarte-langile
- 1 errefortzurako gizarte-langile
- 1 teknikari familia, gazte eta adikzioetarako
- 1 teknikari berdintasunerako
- 1 teknikari immigraziorako
- 1 arduradun etxeko laguntza-zerbitzurako
- 1 saileko arduradun

2 aholkulari-politiko batzorde ditu: horietatik bat gizarte-zerbitzuena, eta bestea, berdintasunari loturikoa, bertan, Udaletxeko alderdi politiko bakoitzak bere ordezkaria duelarik.



2. LANEKO PROZESUAREN METODOLOGIA


2. LANEKO PROZESUAREN METODOLOGIA

2.1. Lan metodologia

Eibarko Haurtzaro, Nerabezaro eta Familia I Pana Eibarren buruturiko Gizarte-Diagnostikoan oinarritzen da, ondorengo metodologia jarraituz burutu delarik:

Gizarte-Diagnostiko parte-hartzailea, tresna kuantitatibo eta kualitatiboetan oinarriturikoa.

Eibarko biztaleriak bere beharren, eskaeren eta interesen Diagnostikoan izan duen parte-hartzeak erabakiak hartzeko prozesua esanguratsuagoa izatea ahalbidetu du; izan ere, pertsonen jaramon eginez, eskaeren ebazpenean ikuspuntu eta ideia berrien sorrera bultzatzea lortu da eta hiritarren partaidetza Gizarte-Zerbitzuen Sailari lagundu dio, Eibarko Gizartekintza, behar sozialak ulertuz eta esku-hartzea bideratzen den kolektibo desbesdinen ikuspuntuak ezagutzuz.



2. LANEKO PROZESUAREN METODOLOGIA


Ardatz estrategikoak identifikatu eta horiek jarduera-lerroetan garatzeko aurrera eramanean den gogoeta-prozesua aurretiko diagnostiko sozial batekin hasi zen, aurrez aipatua izan dena eta ondoren inplikaturik dauden agente desberdinen Parte-Hartze Dinamika batekin kontrastatu dena. Aldi berean, Haurtzaroko Plan desberdinen arteko Benchmarking bat burutu da, esanguratsuenak Vitoria-Gasteizko Haurtzaroko eta Nerabezaroko Plan Lokala eta Leongo Plana izanik bereziki. Gainera, proposamenean kontrasterako adituek eginiko gomendioak jasotzen dira.

2.2. Agente eta zerbitzu parte-hartzaileak

Plan honen lanketan jardun duten pertsona parte-hartzaileak oso desberdinak dira, eta ezaugarri hau da Planaren aberastasunaren iturri.

- Gizarte-ekintzako barne langileak
- Udal teknikariak; Gazteria, Bendintasuna...
- Familia Esku-Hartze eta Ingurune Irekiko programak antolatzen dituzten enpresa pribatuak.
- Ikastetxe desberdinen zuzendari eta orientatzaileak: CIP EIBAR, ALDATZE, Berritzegune, AndraMari Ikastetxea
- Osasun mentaleko zentroko psikologoak
- Guraso elkarteak
- Baikara, Gipuzkoako ikasleen Gurasoen Federazioa.
- Gizarte erakundeak, Gurutze Gorria, Errefuxiatuak, Caritas etabar.

Parte-hartzaile batzuk Eibarko Haurtzaro, Nerabezaro eta Familia I Planean **Sustapen Taldea** deituriko kide izango dira, Plana martxan jarri, jarraipena egin eta ebaluazioa burutzeko ardura izango dutelarik.



3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK


Eibarko Haurtzaro, Nerabezaro eta Familia I Plana 2017an Eibarren buruturiko Diagnostiko Sozial orokor batean oinarritzen da. Jarraian, aipaturiko diagnostikotik ateratako ideia garrantzitsuenen laburpen bat burutzen da, eta baita haurtzaroaren eta familiaren inguruan hautemandako hobekuntza alorrena ere.

3.1. Haurtzaroaren eta familiaren egoera Eibarren

▶ FAMILIA TIPOLOGIA ANIZTASUNA HANDITZEN DA ETA BAITA EIBARKO ADIN-TXIKIKO ETA FAMILIEN DIBERTSITATE KULTURALA ERE

- ▶ Haur tasa handitzen da (%13,81) eta gazteena txikitzen da (%12,3) biak Gipuzkoako tasesiko pixka bat azpitik mantenduz.
- ▶ Eibarren 14 urtez azpiko 3.782 adin-txikiko bizi dira eta 3.372 pertsona 15 eta 29 urte bitartekoak.

3.1 Grafikoa Eibarren haurtzaroko eta gaztaroko indizeek duten garrantzia, Gipuzkoa (%), 2016




Iturria: INE

Eibarko biztanleria aldatu egin da azken urteetan. Nahiz eta 2011tik pixka bat zaharkitu den, 0-16 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa hazi egin da azken urteetan, 2011an biztanleria osoaren %13,0a izatetik %14,7 izatera pasatuz 2016. urtean.

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISA ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK

3.2 Grafikoa Eibarko biztanleria-piramidearen bilakaera, 2011-2016




Iturria: INE

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK

- ▶ Aipatutako adin tartean emakumeak baino gizonzko gehiago egoten jarraitzen du, eta biztanleria osoari begiratuz gero, emakumezkoen zein gizonzkoen indikatzailea Gipuzkoakoaren azpitik kokatzen da.

3.3 Grafikoa Eibar eta Gipuzkoako haur eta gazte biztanleriaren banaketa, sexuz bananduta (%), 2016




Iturria: INE

Edozein kasutan, Eibarko haur eta gazteen indizearen (%) garrantzia, sexuz banatuta, biztanleria osoarekiko oso argia da (azken finean udalerraren etorkizuna baitira), eta 2015ean Eibarrek %14,30 haur-mutil eta %13,36 haur-neska zituen, bi zifrak Gipuzkoan erregistratu zirenaren apur bat azpitik egonik.

Gazteen kasuan, 2015ean biztanleria osoaren %12,81 gizonzkoak ziren eta gazteen %11,85 emakumezkoak, zenbaki hauek, baita ere, Gipuzkoakoaren azpitik daude.

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK

3.1 Irudia Eibarko haur eta gazteen biztanleriaren bilakaera (zenbakitan), 2011-2016



Iturria: Behagi

INE-k argitaratutako azken datuek dioten moduan, Eibarrek 1.985 pertonez osatutako atzerriko biztanleria du, datu honek %7,3ko immigrazio tasa suposatzen duelarik 2016an, Gipuzkoako zenbatekoaren arinki gainetik (%6,6).

Hazkunderako joera argia da eta modu egonkorrean mantentzen da 2011tik, jarraian ikus daitekeen modura.


3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNENKORRONTAK

3.2 Irudia Eibarko biztanleria osoaren eta atzerrikoaren bilakaera, 2011-2016

	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Biztanleria Guztira	27.396	27.507	27.439	27.440	27.414	27.380
Immigrazio tasa (%)	5,8%	6,4%	6,9%	6,9%	7,0%	7,3%
EU (%)	15,6%	14,1%	12,7%	11,8%	10,4%	9,0%
EU kanpo (%)	84,4%	85,9%	87,3%	88,2%	89,6%	91,0%

Iturria: INE eta Udalmap

3.4 Grafikoa Eibarko immigrazio tasaren (%) eta bilakaeraren (zenbakitan) bilakaera, 2011-2016



Iturria: INE eta Udalmap

16 urtetik beherako Eibarko biztanleriaren nazionalitatean sakonduz, sexuz bananduta, ez dago orain dela gutxiko daturik eta, INE-ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldak erakusten duten modura, atzerriko biztanleriaren gehiengoa mutilak dira, zeinak %4,5 Ertain eta Hego Amerikatik eta Karibetik etorri diren.

3.3 Irudia Eibar eta Gipuzkoako 16 urtez azpiko biztanleria sexuz eta jaiotze-lekuz bananduta (%), 2011

	Eibar		Gipuzkoa	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
España	94,7%	98,6%	94,4%	94,4%
Europar Batasuneko beste Estatu kideak	0,8%	--	1,5%	1,4%
Europako Estatuak Europar Batasunetik kanpo	--	--	0,4%	0,2%
Afrika	--	--	0,4%	0,4%
Ipar Amerika	--	--	0,1%	0,0%
Ertain, Hego Amerika eta Karibe	4,5%	0,8%	2,5%	2,7%
Asia	--	0,6%	0,5%	0,9%
Ozeania	--	--	0,0%	0,0%
Guztira	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%

Iturria: INE. Biztanleen eta Etxebizitzen Errolda 2011

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNENKORRONKAK

Etxeko egiturari begiratuz gero, INE-ko 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuek erakusten duten modura, alde batekik, haurrik gabeko bikoteen etxeak nagusitzen dira (%24,5), eta, bestetik, haurrak dituzten bikoteen etxeak, haurretako bat 25 urtez azpikoa izanik (%22,2).

3.5 Grafikoa Eibarko etxebizitza kopurua gutxienez 25 urtez azpitik dituen seme-alabaren bat bizi dena, 2011


Etxebizitzaren egitura	Etxebizitza kopurua
Aita edo ama duten etxebizitzak 25 urtez azpiko adingaberen bat bizi dena	470
Seme-alabak dituen bikoteek osatutako etxebizitzak, non seme-alaben bat 25 urtez azpikoa den.	2.540
Bikoteek edo aita/amak osatutako etxebizitza 25 urtez azpiko seme-alaben batekin bizi dena eta beste pertsona bat/batzuk.	360
65 urtez azpiko emakumea bakarrik bizi den etxebizitza	705
65 urtez azpiko gizona bakarrik bizi den etxebizitza	815
65 urte edo gehiagoko emakumea bakarrik bizi den etxebizitza	1.085
65 urte edo gehiagoko gizona bakarrik bizi den etxebizitza	260
Aita edo ama seme-alaba guztiekin bizi den etxebizitza, 25 urte edo gehiagokoak.	690
Seme-alabarik gabeko bikoteek osatutako etxebizitza	2.805
25 urte edo gehiagoko seme-alaba guztiak etxean bizi dituen bikoteek osatutako etxebizitza.	905
Beste etxe motak	825
Guztira	11.465

Iturria: INE. . Biztanleen eta Etxebizitzaren Errolda 2011

Hala eta guztiz ere, igoera bat egon da gurasobakarreko familietan, pertsona bakarra bizi den etxeetan eta bakarrik bizi diren adinekoen kopuruan.

- ▶ **Eibarren 1.320 gurasobakarreko etxebizitza daude (2014. urtea)**
- ▶ **Etxebizitzaren %15,93a gurasobakarreko familiez osatua dago, Gipuzkoako tasaren gainetik pixka bat (%15,72).**

3.6 Grafikoa Eibar eta Gipuzkoako familia nukleoen banaketa, nukleo motaren arabera banatuta (%), 2011




3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK

Iturria: INE. Censos de Población y Viviendas 2011

▶ EIBARKO FAMILIEN BEHAR-SOZIALAK ETA ZAILTASUN EKONOMIKOAK HANDITZEN DIRA

- ▶ Lanik ez duen 16 urte baino gehiagoko biztanleen kopurua hazten da, eta bereziki epe luzeko langabezia dagoen (+%2,5).
- ▶ Eskualdeko pobrezia egoera eta eskasia-erreala Gipuzkoakoa baino handiagoa da.


3.7 Grafikoa Debabarrena eta Gipuzkoako pobrezia egoera eta eskasi-erreala (%), 2016



Iturria: Eustat

- ▶ 17 urtez azpiko adin-txikikoen %7a lanik ez duten familietan bizi dira (2014. urtea)
- ▶ Udalerriko 300 adin-txikiko, gutxi gorabehera, familiako kide guztiak langabe diren etxeetan bizi dira.

3.8 Grafikoa Lanik ez duten etxeetan bizi diren adin-txikikoak (0 eta 17 urte bitartekoak) (%), 2014




Iturria: Eustat

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNENKOA ERRONKAK


- ▶ Eibarren 900 familia daude, oro har, DBE jasotzen dutenak eta 350 laguntza baino gehiago ematen dira Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (DLL) deiturikoak

3.9 Grafikoa Eibarren Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen biztanleriaren bilakaera (zenbakitan) eta estaldura-maila (%), 2011-2016



Iturria: INE y Udalmap

3.10 Grafikoa Eibarren Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskaeren bilakaera (zenbakitan) eta laguntza jasotzen duten bizikidetza-unitateen bilakaera (%), 2012-2015



Iturria: Udalmap y memoria Gizartekintza.

- ▶ **HAZKUNTZA BAT NABARI DA ADIN-TXIKIKO ETA GURASOEN/TUTOREEN ARTEKO HARREMANETAN DAUDEN ZAILTASUNEN HAUTEMATEAN, ETA BAITA TALDE BEREKOEN ARTEKO HARREMANETAN ERE**

- ▶ Igoera bat egon da adin-txikiko eta gurasoen/tutoreen arteko harremanetan sortzen diren zailtasun-egoera kopuruan, zeinak balorazio eta orientazio prozesu bat eskatzen duten. Komunikazio-gaitasunean hobekuntza bat behar da.


3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNENKORRONKAK

Agenteen gehiengoak bat egiten du haurtzaroa, nerabezaroa eta familiaren arloa kezkatzen dioten arloetako bat dela onartzerako garaian, eta gizarte-zerbitzuen aldetik lan handia dagoela egiteko gehitzen dute.

Udalerriko gizarte-zerbitzuek **arreta eskaini dioten haurtzaroko kasuetan hazkuntza** bat egon da, eta hau haurtzarora bideratzen den giza-baliabideen gehikuntzarako dagoen beharraren erakusle dela ondoriozta daiteke. Hortaz, beharrezkotzat jotzen da haurtzaro, nerabezaro eta familiaren inguruko plan bat burutzea, etorkizunean jarraitu beharko diren ildo nagusiak ezarriko dituen.

Gizarte-erakudeen %66ak adin-txikikoen eta euren guraso/tutoreen arteko harremanetan zailtasunak handitu direla pentsatzen du: %44,4ak modu arinean handitu direla finkatzen du eta %22,2ak biziki handitu direla baieztatzen du.


3.4 Irudia Haurtzaro eta Familia Arloari dagokionean, adin-txikikoen eta guraso/tutoreen arteko harremanetan sortzen diren zailtasunak handitu direla uste al duzu?



Iturria: Eibarko gizarte-elkarteei galdeketa, 2017, IKEI

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK

3.5 Irudia Haurtzaro, nerabezaro eta familien behar-sozial nagusiak




Iturria: Eibarko gizarte-elkarteei galdeketa, 2017, IKEI

▶ **GEROZ ETA NABARMENAGOA BIHURTZEN ARI DA FAMILIEN ETA BESTELAKO ERAKUNDEEN KEZKA ADIN-TXIKIKOEK SUBSTANTZIEN-GANAKO DUTEN MENPEKOTASUNAGATIK (BEREZIKI TABAKOA, ALKOHOLA EDO KALAMUA)**

▶ **TEKNOLOGIA BERRIENAGAKO MENPEKOTASUNAREN INGURUKO KEZKA HANDITZEN DOA**

▶ **Teknologia berrien kontsumoa eta erabilera burutzen hasten den adina dira haurtzaroaren alorrean nabari diren kezka nagusiak**

3.6 Irudia Batezbesteko hasiera-adinaren bilakaera alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoan, 2002-2012




Iturria: Eibarko gizarte-elkarteei galdeketa, 2017, IKEI

▶ **Intzidentzia gehien erregistratzen diren alorrak teknologia berrienganako adikzioa, gazteek euren artean ditzuzten harremanetarako zailtasunak, ciberbullying-a eta alkoholaren gehiegizko kontsumoa dira.**

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNENKORRONKAK


Erakundeen %77ak kezka altua edo oso altua adierazten du kontsumitzen hasten den adinaren inguruan. Aldi berean, erakundeen %67ak kezka altua edo oso altua duela azaleratzen du teknologia berrien erabileraren alorrean.

3.11 Grafikoa Haurtzaroari loturiko zenbait alorretan dagoen batezbesteko kezka



Iturria: Eibarko gizarte-elkarteei galdeketa, 2017, IKEI.

3.12 Grafikoa Haurtzaroarekin eta familiarekin loturiko gizarte-errealitateen intzidentziak



Iturria: Eibarko gizarte-elkarteei galdeketa, 2017, IKEI.

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNENKORRONKAK

▶ UDALERRIKO GAZTEK DITUZEN LOKALEN EGOERAK KEZKA SORTZEN DU

Familia, profesional eta gizarte-agenteen artean kezka nabarmena dago gazteen lokalen ugaritzearen inguruan. **Hazkuntza bat gertatu da elkarretaratze eta aisialdiko espazioetan (lokalak) gertatzen diren liskarren eta drogen gehiegizko kontsumoan.** Azken hamarkadan, igoera bat antzeman da aisialdirako edo/eta elkartzeko lokalak dituzten gazteen kopuruan, hauetariko asko adin-txikikoak izanik. Lokal gehienek, ez dituzte baldintza egokiak betetzen, kearen irteera, intsonorizazioa, sute-arriskua handituz. Ezegonkortasun honek, udaltzaingoaren esku-hartzea bultzatzen du, bizilagun baten salaketak, gazteak lokaletik joanaraztea eta lokalaren itxiera ekarriz. Zenbait udal-laguntza existitzen dira lokal hauen legeztapenerako, baina ez daukate efikazia handirik.

Ez dago gehiegizko adostasunik gai honen inguruan. Beste zenbait udalerritan ekimen desberdinak sustatu dira alor honetan, beraz, interesgarria litzateke know how hori aprobetxatzea eta baita beste zenbait ingurutan lortutako esperientzia ere.

3.2. Erabilgarri dauden baliabideen balioespena

▶ HAZKUNTZA BAT DAGO GIZARTE-ZERBITZUEK ARTATZEN DITUZEN FAMILIA KOPURUAN ETA BAITA ESKU-HARTZE HONEN KONPLEXITASUNEAN ERE (FAMILIA TIPOLOGIA ETA KULTURA DESBERDINTASUNA)

- ▶ **2016an 27 familia artatu ziren Eibarren.**
- ▶ **Gizartze-zerbitzuen aldetik, familia barneko gatazken hautematean hazkuntza nabari da (harreman-arazoak adin-txikikioen eta guraso/tutoreen artean).**
- ▶ **Adin-txikikoek gauzaturiko jakinarazpen kasuen hazkuntza (+%80,4),** baita aurrrera eramandako **esku-hartze familiarretan (+%22,7)** eta **Esku-Hartze Familiarren Zerbitzuak artatutako adin-txikikoen kopuruan ere (+%27,8).**

Gizartekintzaren Memoriak dioenez, 2016an 92 adin-txikikoen arreta burutu zen, gehienbat ikastetxeetatik eratorritakoak (28).

Adin-txikikoen jakinarazpen zenbaki hau 2015ean erregistratutakoarekiko arinki gainera aurkitzen da, baina nabarmendu beharra dago 2011tik hona buruturiko arreta-zifrak %80,4 handitu direla (ia-ia hirukoiztu egin da).

Familia alorrean eginiko esku-hartzeek ere hazkuntza bat izan dute 2011tik, baina azken urteetan, egongortu egin da zenbatekoa. Ikastetxeek Gizarte-Zerbitzuetara sartzeko

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK

lehenengo bidea izaten jarraitzen dute. Azken urteetan jasotako 335 jakinarazpenetatik, 147 bide honetatik etorri dira, igoera handiena jasan duena izanik (bereziki 2013an).

3.7 Irudia Gizarte-Zerbitzuek jasotako jakinarazpenak Eibarren (zenbakitan), 2011-2016

Jasotako jakinarazpenak (zenb.)	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Adingabeen jakinarazpenak (adingabe zenb.)	27	33	45	51	87	92
Ikastetxeak	10	16	29	30	34	28
Foru Aldundia	1	1	4	6	12	12
Gizarte-Zerbitzuak (sail propioa)	10	2	5	8	7	20
Familiak	5	11	5	2	17	9
Adingabeen edota Larrialdi sozialen Epaitegia	0	2	2	2	7	0
Udaltzaingoa eta Ertzaintza	0	0	0	2	4	10
Osakidetzaren jakinarazpenak (pediatria y buruko osasuna)	1	0	0	1	3	5
Besteak	0	1	0	0	3	8
Aurrera eramandako Familia Esku-Hartzeak (familien %)	18	21	20	22	22	27
Familia Esku-Hartzean artatutako adingabeak (adingabe kopurua)	37	34	34	36	33	46
Kasu berriak (familia kopurua)	6	14	16	16	10	19
Gipuzkoako Foru Aldundiak eratorritako kasuak (familia kopurua)	0	0	2	5	4	3
Beste udalerrietara lekualdatu	0	0	1	0	0	0
Familia Esku-Hartzean eta Ingurune Irekian Arretak	--	--	--	188	115	104

Iturria: Memoria Gizartekintza.

► **Familiekin buruturiko esku-hartzeen zenbatekoa handitzen da eta baita Gizarte-Zerbitzuek esku-hartze familiarretan izandako urteko gastua ere.**

2016. urtean esku-hartzeen ordu kopurua handitu egin da. Guztira 2.300 ordu izan dira, honela banatuak izan direlarik: 1.864 ordu Familia-Hezkuntzan, 183 ordu Koordinazioan, 177 ordu Familia-Terapian eta 37,33 ordu Koordinazioan.

Aurrekontuari dagokionean, azken urtean 59.253,58 eurotako izan da, jarraian adierazten den moduan banatuak izanik: 3.081,51 euro Aldundiari deribaturiko esku-hartzeetan, 8.148,05 euro amaituriko esku-hartzeetan eta 48.024,02 2017an oraindik martxan dauden esku-hartzeetan. Nabarmentzekoa da adin-txikikoetan diru gutxiago gastatu zela, eta zenbateko hori, azkenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak duen bigarren mailako gizarte-zerbitzuen arretara deribatuak izan zela.

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK


3.8 Irudia Familia esku-hartzeetan Gizarte-Zerbitzuak buruturiko urteroko gastuen banakapena Eibarren, 2016

	Zenbatekoa (zen.)	%
Aldundira eramandako kasuen gastua	3.081,51	5,2%
Bukatuta dauden esku-hartzeen gastua	8.148,05	13,8%
Aktibo dauden esku-hartzeen gastua	48.024,02	81,0%
Guztira	59.253,58	100,0%

Iturria: Memoria Gizartekintza.

2015ean hilabeteroko gastuak izan duen egonkortasunari begiratu gero, ezegonkorragoak izan dira 2016ko gastuen zenbatekoak. Urtarrilean esku-hartze txikia egon zen, aldiz, abendua izan zen gastu altuena erregistratu zen hilabetea.

3.9 Irudia Familia esku-hartzeetan Gizarte-Zerbitzuak buruturiko urteroko gastuaren banakapena hilabeteetan zatituta Eibarren (€), 2016



Iturria: Memoria Gizartekintza.

▶ ARRISKU-EGOERAN DAUDEN ADIN-TXIKIKOEN HAUTEMATEA HANDITZEN DA, HEZKUNTZA- ETA GIZARTE-AGENTE DESBERDINEN KOLABORAZIOARI ESKER

- ▶ **Azken urtean Eibarko 100 haur baino gehiago ari ziren parte hartzen Ingurune Irekiko Hezibide Programan, nahiz eta zenbateko hau %-32,9 txikitzen den 2014 urtearekiko.**

Adinari dagokionean, azken urtean Hezkuntza Proiektu Indibidualetik arreta eskaini zaien pertsonak 10 eta 12 urte bitartean kokatzen dira, hazkuntza nabarmena izanik azken urteetan (+%60,0 2014tik).

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNENKORRONKAK

Gizartekintzaren Memoriak adierazten duen moduan, kasu gehienetan erantzukizunaren bereganatzean lan egin da, baita asteko ohiko jardueren sustapenean egoera akademiko eta gizarte-harremanak hobetzeko, eta gizarte-harremanetako konpetentziak eta emozioen kudeaketa hobetzeko, besteak beste.

- ▶ **Edozein kasutan, nabarmena da artatu diren mutil-gazteen kopuruaren hazkuntza (+%33,3), eta baita 10-12 urte bitarteko haurren artean erregistraturiko hazkuntza ere (+%60,0).**

Adin-txikikoak dituzten familietan gertatzen diren gatazkak neurri handiagoan iristen dira Gizarte-Zerbitzuetara, hein handi batean, hezkuntza- eta gizarte-agenteen arteko koordinazioan egon den igoeragatik.

3.10 Irudia Eibarko Gizarte-Zerbitzuek artatu duten biztanleriaren bilakaera Ingurumen Irekiko Hezibide Programaren bitartez (zenbakitan), 2014-2016

Guztira artatutako nerabeak (erabiltzaile kopurua)	2014	2015	2016	2014/2016 ▲%
Mutil zenb.	27	30	36	33,3
Neska zenb.	29	34	24	-17,2
Guztira	56	64	60	7,1
10-12 artean	15	17	24	60,0
13-14 artean	22	23	14	-36,4
15-16 artean	11	17	16	45,5
17-18 artean	8	7	6	-25,0
+18	--	0	0	--
Guztira	56	64	60	7,1
Guztira artatutako familiak	56	51	49	-12,5
Guztira artatutako pertsonak	155	115	104	-32,9

Iturria: Memoria Gizartekintza

2016an 16 izan ziren guztira lanean jardundako Hezkuntza-Proiektu Indibidual (HPI) kopurua, horietatik 9 itxi zirelarik, beste 6-ek joateaz utzi zuten eta beste bat Taldeko Hezkuntza-Proiektuko erabiltzaile izatera pasatu zen. Guztira, 2016an 5 HPI berri ireki ziren.

Adinari dagokionean, azken urtean Hezkuntza-Proiektu Indibidualak artaturiko pertsonen gehiengoa 10 eta 12 urte bitartean aurkitzen da, igoera nabarmena eduki duelarik azken urteetan (+%60,0 2014tik).

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK

3.11 Irudia Ingurumen Irekiko Hezibide Programaren bitartez Eibarko Gizarte-Zerbitzuak garaturiko jarduerak izan duen bilakaera (zenbakitan), 2014-2016

Esku-Hartze mota	2014	2015	2016	2014/2016 ▲%
Banakako Heziketa Proiektuak	17	14	16	-5,9
Taldeko Heziketa Proiektuak	9	7	12	33,3
Komunitate proiektuak	1	1	1	0,0
Berriak	17	24	23	35,3


Iturria: Memoria Gizartekintza

▶ HAURTZAROA ETA FAMILIA INDARTU BEHARREKO ALOR MODURA KONSIDERATZEN DIRA PREBENTZIOAN ETA ESKU-HARTZEAN GIZARTE-ZERBITZUEN ALDETIK

- ▶ Agente eta erakunde zenbateko garrantzitsu bat dago haurtzaro eta familia alorrean inplikaturik: gizarte-erakundeen artean, **inkestan parte-hartu zuten erakundeen gehiengoa haurtzaro, nerabezaro eta familiarekin loturikoak dira.**
- ▶ **Kezka sortzen duen alor bat da** eta lan handia dago egiteko gizarte-zerbitzuen aldetik.
- ▶ **Familien esku-hartzearen egokitzeak kezka sortzen du kontuan izanik familietan dauden tipologia eta kultura desberdintasunak.**
- ▶ **Beharrezkoa da haurtzaro, nerabezaro eta familia jardueren errefortzua.**
- ▶ **Ingurumen Irekiko Hezibide Programaren eta Esku-Hartze Familiarraren** balorazio positiboa.
- ▶ Haurtzaro, nerabezaro eta familia alorrean dauden prebentzio eta esku-hartzearako baliabideen **batezbesteko asebetetze maila 6koa da 10etik.**

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNENKORRONKAK

3.13 Grafikoa Eibarko gizarte-zerbitzuak hobetu edo indartu behar dituen jarduerak nagusiak



Iturria : Eibarko gizarte-elkarteei galdeketa , 2017, IKEI

► DENBORA-LIBRE ETA AISIALDIRAKO ESKAINTZA MUGATUA DELA BALORATZEN DA (IRAGANKORTASUNA ETA ADIN-TARTEAK)

Gizarte-agenteei Eibarren erakunde eta aisirako jarduerak gutxi daudela baieztatzen dute 14 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. Udalerrian dauden kanpoko-guneak, bereziki neguan eta klima gogorarekin mugatuak dira. Eta gainera, elkarte eta erakunde gutxi daudela uste da espezifikoki adin-txikikoen familia-estalduraren egoera lantzen dutenak.

Eibarko Gizarte-Diagnostikoan parte hartu duen biztanleriaren aldetik, erabateko adostasuna dago denbora-libreari eta aisiari dagokionean udalerriak duen eskaintza mugatuaren inguruan, eta hau indartu egin behar dela adierazten da adin-txikikoentzat eta bere familientzat interesgarri izan daitezkeen ordeko aisialdi bat garatzeko helburuarekin. Zenbait hobekuntza-proposamen egiten dira:

- ▶ **14 eta 18 urte bitarteko adin-txikikoen aisialdirako jarduerak bultzatu.**
- ▶ **Uda-garaia:** Uda-garaiko jarduerak eza: bazterkeria arriskuan dagoen adin-txikikoen populazioa, ikasturtean zehar babestuago aurkitzen da, jarduerak dituen eskola-ordutegia, jangelara joateko aukera...
- ▶ **Ludoteka eta gaztelekuaren eskaintza luzatzea ikasturte garaiaz haratago.**
- ▶ **Ikastetxeaz kanpo jarduerak prebentibo gehiago egin (gazte-elkartek, gaztelekuak,...).**

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK

3.3. Hobekuntza Eremuak. Beharrak eta Kezkak.

- ▶ FAMILIA TIPOLOGIA ANIZTASUNA ETA ADIN-TXIKIKOEN POPULAZIOAREN ETA FAMILIEN KULTURA ANIZTASUNA HANDITZEN DA EIBARREN
- ▶ GIZARTE-BEHARRAK ETA ZAILTASUN EKONOMIKOAK DITUZTEN EIBARKO FAMILIEN KOPURUA HANDITZEN DA
- ▶ HANDITU EGITEN DA ADIN-TXIKIKO ETA GURASO/TUTOREEN ETA TALDE BERTINEKOEN ARTEKO HARREMAN ZAILTASUNEN HAUTEMATEA
- ▶ GEROZ ETA NABARIAGO BIHURTZEN DA FAMILIEK ETA BESTELAKO ERAKUNDEEK DUTEN KEZKA MENPEKOTASUNA SORTZEN DUTEN SUBSTANTZIEN KONTSUMOAREN INGURUAN (BEREZIKI TABAKOA, ALKOHOLA EDO KALAMUA) GAZTEEN ARTEAN
- ▶ TEKNOLOGIA BERRIEN GAIN DAGOEN ADIKZIOAREN INGURUKO KEZKA HANDITZEN DA
- ▶ UDALERRIKO GAZTEEN LOKALEN EGOERAK KEZKA SORTZEN DU
- ▶ GIZARTE-ZERBITZUEK ARTATUTAKO FAMILIA KOPURUA HANDITZEN DA ETA BAITA ESKU-HARTZE HONEK DUEN KONPLEXUTASUNA ERE (FAMILIA TIPOLOGIEN ANIZTASUNA ETA KULTURA ANIZTASUNA)
- ▶ ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADIN-TXIKIKOEN HAUTEMATEA HANDITZEN DA, HEZKUNTZA- ETA GIZARTE-AGENTEEN ARTEKO KOORDINAZIO HOBEKUNTZARI ESKER
- ▶ HAURTZAROA ETA FAMILIA GIZARTE-ZERBITZUEK INDARTU BEHARRERAKO ALOR MODURA IDENTIFIKATZEN DIRA PREBENTZIO ETA ESKU-HARTZE ALDERDIETAN
- ▶ UDALERRIAN DENBORA-LIBRERAKO ETA AISIALDIRAKO DAGOEN ESKAINTZA MUGATUA DELA BALIOESTEN DA (IRAGANKORTASUNA ETA ADIN-TARTEAK)

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNENKORRONKAK


3.4. Haurtzaroa, nerabezaroa eta familia: ERRONKAK

Haurtzaroaren eta familiaren alorrean buruturiko Gizarte Diagnostikoaren ondoren, jarraian udalerriko erronka nagusienak zehazten dira, eta horren baitan eraikizen da **Eibarko Haurtzero, Nerabezaro eta Familia I Plana**.

BEHARRAK ETA ARDURAK	ERRONKAK	ARDATZA
FAMILIA TIPOLOGIEN ANIZTASUNA ETA ADIN-TXIKIKOEN POPULAZIOAREN ETA FAMILIEN KULTURA ANIZTASUNAREN IGOERA	PREBENTZIOETA ESKU-HARTZE JARDUERETAN FAMILIA ETA KULTURA ANIZTASUNA KONTUAN HARTU	PREBENTZIOA ETA ESKU-HARTZEA
EIBARKO FAMILIEN GIZARTE-BEHARRAK ETA ZAILTASUN EKONOMIKOAK HANDITU DIRA	ARRISKUAN DAUDEN ETA ARAZO EKONOMIKOAK DITUZTEN FAMILIAK LAGUNDU ETA UDALERRIKO BIZITZA-SOZIALEAN HAUEN PARTE-HARTZEA BULTZATU	ESKU-HARTZEA ETA BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA
ADINGABEKOEN ETA HAUEN GURASO ETA TUTOREEN ARTEKO ERLAZIO ARAZOEK GORA EGITEN DUTE, ETA BAITA TALDE BEREKOEN ARTEKO ERLAZIO ARAZOEK ERE	GURASOEI UMEEN HEZIKETAN ETA HEZKUNTZAN LAGUNDU, KOMUNIKAZIO ETA ERLAZIO TREBETASUNA HOBETZEKO TRESNEN BIDEZ	PREBENTZIOA
MENDE(KO)TASUN-SORTZAILE DIREN SUBSTANTZIEN INGURUAN (ALKOHOLA, TABAKOA, KANNABIS-A) DAGOEN ARDURA GURASO ETA ERAKUNDEEN ALDETIK GEROZ ETA NABARMENAGOA DA	SUBSTANTZIA ARRISKUTUSEN KONSUMOA SAIHESTU	PREBENTZIOA
TEKNOLOGIA BERRIEN MENPEKOTASUNA GEHIAGOTZEAREN ARDURA	TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERA DESEGOKITIK ERATORRITAKO ONDORIOAK SAIHESTU	PREBENTZIOA
UDALERRIKO GAZTE-LOKALEN EGOERARI BURUZKO ARDURA	TOPAKETA ETA AISIALDI-GUNEAK DINAMIZATU	PREBENTZIOA
GIZARTE-ZERBITZUEK BURUTURIKO FAMILIA ESKU-HARTZEAK AREAGOTU DIRA ETA BAITA HAUEN KONPLEXUTASUNA ERE (FAMILIA ETA KULTURA ANIZTASUNAGATIK)	ESKU-HARTZEAK UDALERRIKO FAMILIA MOTA BERRIEI ETA ANIZTASUN KULTURALARI EGOKITU	ESKU-HARTZEA
ARRISKUAN DAUDEN ADINGABEEN HAUTEMATEA HANDITU DA, HEZKUNTZA-ETA GIZARTE-AGENTEEN KOORDINAZIO HOBEKUNTZARI ESKER	ERAGILE GUZTIEN ARTEKO KOORDINAZIO MAILA HOBETU ESKURAGARRI DAUDEN BALIABIDEEN ERABILERA OPTIMIZATZEKO	ESKU-HARTZEA ETA BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA

3. ABIAPUNTUKO EGOERAREN ANALISIA ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK

PREBENTZIO ETA ESKU-HARTZE ARLOETAN, HAURTZAROA ETA FAMILIA INDARTU BEHARREKO GAIK DIRA	ESKAINITAKO ZERBITZUAREN KALITATEA MANTENDUZ, ARRETA INDARTU ETA HERRIKO BALIABIDEAK OPTIMIZATU, BETI ERE HIRIAREN PLANGINTZAN HAURTZAROA ETA FAMILIA ATALAK BARNERATUZ	ESKU-HARTZEA ETA BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA
AISIALDIAREKIN LOTURIKO UDAL-ESKAINZTA ESKASA DELA ANTZEMAN DA (ADIN-TARTE GUZTIK EZ DIRA BETETZEN ETA EZ DA URTE OSORA LUZATZEN)	AISIALDIAREKIN LOTURIKO ESKAINZTA HOBETZEKO ELKARLANA BULTZATU	BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA



4. PLANAREN MISIOA, HELBURUAK ETA OINARRIAK

4. PLANAREN MISIOA, HELBURUAK ETA OINARRIAK

4.1. Planaren misioa

Eibarko Lehenengo Haurtzaro, Nerabezaro eta Familia Planaren misioa haur, nerabe eta bere familien babesa eta sustapena bermatuko dituen udal-jarduera desberdinak bultzatu eta aurrera eramatea da: euren bizi-kalitatea hobetzera bideraturik dauden udal-jarduerak optimizatuz, garapen ebolutibo egoki bat sustatuz, eta gizartean parte-hartze eta integrazio progresibo bat garatuz eskubide beteko biztanleriaren antzera.

4.2. Planaren helburu orokorrak

Eibarko Lehenengo Haurtzaro, Nerabezaro eta Familia Plana zehazten duten helburu nagusienak jarraian aipatzen dira:

1. Haurtzaro, nerabezaro eta familiei bideraturiko **arreta zerbitzuak sendotu eta hauen kalitatea hobetu**.
2. **Haurren hezkuntza eta heziketan** Eibarko familiei laguntza eskaini
3. Eibarko **haurren eta familiaren beharrei erantzuna emateko baliabideen** optimizazioa, batez ere haur kalteberenei.
4. **Babes gabeko egoera arin eta esanguratsuetan arreta eta esku-hartzea** sustatu.
5. **Haur eta familiek gizartean duten parte-hartzea** bultzatu.
6. **Hiriaren plangintzan haurtzaro, nerabezaro eta familia atalak** barneratu.
7. **Eragile guztiak inplikatzeko** aukera bilatu eta **komunitatearen esku-hartzea sustatu** zailtasun egoerei arreta eskaini eta hauek saihesteko.

Helburu hauek, jardueren bitartez behar bezala antolaturik egongo dira.

Eibarko Lehenengo Haurtzaro, Nerabezaro eta Familia Planaren barruan **Sustapen-Talde** bat sortuko da, Plana martxan jarri, jarraipena egin eta ebaluazioa egiteko ardura izango duena. Bere eraketa mistoa eta diziplina anitzekoa izango da. Planaren erantzukizuna publikoa izango da, eta partaidetza pribatua zein gizarte-izaera duena sustatuko da.

4.3. Planaren Oinarrizko eta Zeharkako oinarriak


Haurtzaro, Nerabezaro eta Familia Planaren lanketak, eta zehazki, lerro-estrategikoen eta alde bereko jardueren diseinuak, oinarrizko premisa moduan hartzen du pertsona ororen eta bereziki adingabeen eskubide oinarrizkoen jakintza, defentsa eta sustapena, eskubide hauek barneraturik daudelarik Giza Eskubideen Adierazpenean, Haurren Eskubideen Adierazpenean eta Nazio Batuetako Haurren Eskubideen Batzarreko Adierazpenean.

4. PLANAREN MISIOA, HELBURUAK ETA OINARRIAK

Halaber, plan honetan barneratzen diren jarduerak aintzat hartzen dituzte estatu eta erkidegoen oinarritzko legedian agertzen diren printzipio, eskubide eta betebeharrak.

Gainera, planak jarduketarako zeharkako oinarri modura barneratzen ditu jarraian aipatzen direnak:

- **Berdintasuna:** Planak berdintasuneko gizarte baten lorpenean aurrera egin nahi du, pertsona guztiak aske izanik, bai esparru publikoan zein pribatuan, norik bere gaitasun personalak garatzeko eta erabakiak hartzeko rol tradizionalak sexuaren arabera ezartzen dituzten muga barik, eta neurri berean kontuan hartuz, baloratuz eta indartuz emakumezkoen eta gizonezkoen jokaera desberdinak, nahiak eta beharrak.
- **Generoaren perspektiba:** Plana ikuspuntu hau barneratzeko dagoen beharraren ondorioz sortzen da, gure gizartean sexuak berebiziko garrantzia duelaren berariazko aitortze-eraketik eta baita, haurren eta nerabeen egoera, baldintza eta gura desberdinen kontsiderazio sistematikotik, bere helburuak eta jarduerak berdintasunaren printzipiora egokituz eta berdintasunerako helburu eta jarduera espezifikokoak barneratuz. Honek guztiak Planaren helburu orokorra den haurren eta nerabeen desberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzera bideraturik egon behar du.
- **Biztanleria adin-taldean eta familia tipologia aniztasunaren arabera:** biztanleria eibartarraren behar-sozialak garatuz eta aldatuz doaz bizitza-zikloan barrena. Planak errealitate hau aintzakotzat hartu behar du eta adin-tarte desberdinetan dauden beharren aniztasunari arreta eskaini behar dio: haurtzaroa, nerabezaroa eta adin-nagusitasuna. Gainera, familiak ere eboluzionatzen joan dira eta gaur egun familia-eredu desberdinak elkar-bizi dira (pertsona-bakarreko familiak, gurasobakarreko familiak, berriz elkartu diren familiak,...).
- **Kultura aniztasuna:** Eibarko gizartea jatorri eta kultura anitzeko pertsonen osatzen dute. Hortaz, beharrezkoa da talde desberdinen arteko interrelazioa indartzea, eta baita parrakotasun jokaera bat, diferentziarekiko errespetua, aniztasunaren aberastasuna eta Eibar udalerrira osatzen duten pertsonen arteko interakzio positiboa sustatzea.
- **Komunikazioa eta hedapena:** ezinbestekoa da jarduera desberdinen garapen-prozesua eta aurreikusitako helburuen lorpena, parte-hartzaile kopuruaren antzera; eta bereziki, zenbait kolektibotan beharrezkoa izaten da komunikazio eta hedapen jardueren diseinua eta lanketa bide desberdinak erabiltzea (masiboak: prensa, irratia, interneta, edo gehigarriak: lankidetzak-jarduerak, ohikoak ez diren bide fisikoak, ...) jardueraren xede den publikoari ekimena transmititu eta entzutea lortzeko, eta ondoren, beraien partaidetza lortzeko.
- **Sarean eginiko lana eta inplikaturik dauden eragilearen arteko elkarlana eta gizartearen oro har:** Eibarrek eragile publiko eta pribatuaren sare zabala dauka haurtzaro, nerabezaro eta familia alorrean esku-hartze dutenak. Administrazio publikoaren, erakundearen, gizarte-elkarteen, enpresa pribatuaren eta, oro har, hiritarren arteko inplikazioak eta osagarritasunak erabilgarri dauden baliabideak indartzea ahalbidetzen du eta baita egoeraren hobetzera eta arazoaren konpontzera elkarlanean jardunez.



5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

5.1. Ardatz Estrategikoak eta Jarduera-Lerroak

Eibarko Haurtzaro, nerabezaro eta familiaren I Plana **2018-2017** ezarpen-epeldirako dena **3 ardatz estrategikoz, 8 jarduera-lerroz eta 35 akzioz** osatua dago.

EIBARKO HAURTZARO, NERABEZARO ETA FAMILIA PLANAREN ESTRATEGIA	
1. ARDATZA. HAUR, NERABE ETA FAMILIEN ZAILTASUNAK SAIHESTEKO KOMUNITATE ESKU-HARTZEA SENDOTU	
1.1. HAUR ETA NERABEEN ZAINTZAN, ARRETAN ETA HEZIKETAN FAMILIEI LAGUNTZA EMAN	<p>1.2.2 Laguntza-taldeak sortu guraso eta tutoreentzat.</p> <p>2.2.2 Gurasoen prestakuntzarako tailerrak, arrisku egoeren hautemate eta prebentziarako (substantzien gehiegizko kontsumoa, teknologia berriak, bullying,...) eta ohitura osasungarriak bereganatzeko.</p> <p>3.2.2 Prestakuntza jarduerak gurasoen trebetasunak hobetzeko eta guraso-hauren arteko komunikazio eta harremanak hobetzeko.</p>
1.2. ADINGABE, NERABE ETA GAZTEEI HELDUTZE PROZESUAN LAGUNDU	<p>1.2.2 Haurren babesgabezia egoerak azkar hautemateko programa.</p> <p>2.2.2 (Substantzien kontsumoa, teknologia berria, bullying,...) loturiko egoera arriskutsuak era egoki batean kudeatzeko prestakuntza tailerrak, ohitura osasungarriak bultzatuz.</p> <p>3.2.2 Kanean dabilzan 18 urtez azpiko gazteak hauteman eta hauei arreta indartzea.</p> <p>4.2.2 18 urtetik gorako gazteentzat gizarte-hezkuntza programa bultzatzea.</p> <p>5.2.2 Haurtzaroko eskola errendimenduaren hobekuntzarako programa, etxeko ikasketarako inguru egokiak ahalbidetuz "ikasketa mahaia".</p> <p>6.2.2 Topaketa eta Aisialdirako eremuen inguruan hausnarketa taldea (gazte lokalak).</p>
1.3. HAURTZARO, NERABEZARO ETA FAMILIEN BEHARREN INGURUAN KOMUNITATEA SENTIKORTU	<p>1.2.2 Haurtzaro, nerabezaro eta familiarekin loturiko gaietan, gizartea jabetu.</p> <p>2.2.2 Haurtzaroarekin eta familiarekin lotura daukaten profesionalak prestatzea.</p> <p>3.2.2 Foroa: Haur eta nerabeekin zuzenean lanean dauden eragileen lan taldea.</p>
2. ARDATZA. ARRISKUAN ETA BABES GABE DAUDE FAMILIA, HAUR ETA NERABEEI ARRETA ETA ESKU-HARTZEA SUSTATU	
2.1. FAMILIEKIN ARRETA ETA ESKU-HARTZEA INDARTU	<p>2.1.1. Familientzako informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua.</p> <p>2.1.2. Adingabeak bere gain dituzten familia ahulenen balorazioa BALORA tresnaren bitartez.</p> <p>2.1.3. Familientzako arreta-personalizatuko plana.</p> <p>2.1.4. Familia esku-hartzerako planaren berrikuspena eta berfinkapena, familia tipologia eta jatorri aniztasunaren perspektiba barneratuz.</p> <p>2.1.5. Baliabide ekonomiko eskasak dituzten familiei laguntza emateko programen balorazioa eta errefortzua.</p> <p>2.1.6. Gizarte-ahulezian dauden familiei bideraturiko heziketa-jarduerak.</p>
2.2. ARRISKUAN ETA BABES GABEZIA ARINEAN EDO ESANGURATSUAN DAUDEN ADINGABEEN ARRETA SENDOTU	<p>2.2.1. Ingurune irekiko hezibide programaren sendotzea.</p> <p>2.2.2. Babesgabezia egoerak hautemateko saileko profesionalen heziketa.</p> <p>2.2.3. Seme-alabak dituzten genero indarkeriako biktimen esku-hartze eta prebentzio-jardueren indartzea.</p> <p>2.2.4. Baliabide ekonomiko eskasak dituzten familia ahuletako adingabeen kirol eta aisialdiko jardueretan parte-hartzea errazteko laguntza.</p>
3. ARDATZA UDALERRIAN ERABILGARRI DAUDEN BALIABIDEAK OPTIMIZATU	
3.1. ZERBITZU ETA BALIABIDEEN KALITATEA HOBETU ELKARLANAREN, KOORDINAZIOAREN ETA SAREKO LANAREN BITARTEZ	<p>3.1.1. Barne-koordinaziorako batzordeak sailaren barruan (haurtzarora, adikzioak, oinarriko gizarte-zerbitzuak, berdintasuna eta immigrazioa, ingurune irekiko programa eta familian esku-hartzeko programa).</p>

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

EIBARKO HAURTZARO, NERABEZARO ETA FAMILIA PLANAREN ESTRATEGIA

- 3.1.2. Sailen arteko koordinaziorako bide egonkorak ezarri (gizarte-zerbitzuak, gazteria, kultura) udal-kudeaketan haurtzaro eta familia ikuspuntua integratzeko.
- 3.1.3. Koordinazioa ikastetxeekin.
- 3.1.4. Koordinazioa osasun-zentroekin.
- 3.1.5. Gizarteratzean eta laneratzean inplikaturik dauden gizarte-eragile eta erakundeekin parte-hartzea.
- 3.1.6. Kultura eta gazteen eremuarekin elkarlanerako jarduerak burutu udalerriko aisialdirako eskaintza hobetzeko.
- 3.1.7. Haurtzaro eta familia alorrean lan egiten duten elkarte eta erakundeei laguntza eta kolaborazioa.

3.2. UDALERRIAN HAURTZAROA, NERABEZAROA ETA FAMILIARI LAGUNTZA EMATEKO ERABILGARRI DAUDEN BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK ZABALDU

- 3.2.1. Haurtzaro, nerabezaro eta familia I Planaren komunikazioa eta hedapena.
- 3.2.2. Eibarko haurtzarotari eta familiari bideraturik dagoen udal-baliabideen gida bat egin eta zabaldu.
- 3.2.3. Haurtzaro, nerabezaro eta familiaren inguruko baliabideak barneratu udaletxearen web-orrian eta sare-sozial esanguratsuenetan.
- 3.2.4. Familiei laguntza emateko gizartze-zerbitzuen inguruko informazio kanpaina.

3.3. HAURTZARO, NERABEZARO ETA FAMILIA PLANA EBALUATU

- 3.3.1. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko batzorde bat sortu.
- 3.3.2. Planaren urteroko ebaluazio txostenen lanketa.

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

5.2. Ardatz bakoitzeko jarduera proposamenak

5.2.1. 1. ARDATZA. Haur, nerabe eta familien zailtasunak saihesteko komunitate esku-hartzea sendotu

1 ARDATZA	HAUR, NERABE ETA FAMILIEN ZAILTASUNAK SAIHESTEKO KOMUNITATE ESKU-HARTZEA SENDOTU	
HELBURUA	1.1 HAURREN ETA NERABEEN ZAINTZAN, ARRETAN ETA HEZIKETAN FAMILIEI LAGUNDU	
NEURRIAK	<p>1.1.1. Guraso eta tutorentzako laguntza-taldeak: seme-alaben hazkuntzan laguntzekotalde-saioak antolatu.</p> <p>1.1.2. Gurasoen prestakuntzarako tailerrak, arrisku egoeren haute-mate eta prebentziorako (substantzien gehiegizko kontsumoa, teknologia berriak, bullying,...) eta ohitura osasungarriak bereganatzeko. Heziketa eta gurasoen prestakuntzarako tailerrak diseinatu arazo edo arrisku-egoera nagusien inguruan, eta baita ohitura osasungarrien sarrera laguntzen duten gaien inguruan ere.</p> <p>1.1.3. Prestakuntza jarduerak gurasoen trebetasunak hobetzeko eta guraso-haurren arteko komunikazio eta harremanak hobetzeko. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremana hobetzea ahalbidetzen duen heziketa-jarduerak diseinatu, arauen sarrerako gaietan adibidez. Aurkitu daitezkeen behar zehatzen inguruan heziketa plan pertsonalizatuak egin daitezke.</p>	
Lidergoa	Sustapen-Taldea	
Eragile inplikatuak	Gizartekintza, BAIKARA eta AMPAS ikastetxeak	
Akzioaren Adierazlea	Martxan jarritako akzio kopurua.	1. LAGUNTZA TALDEAK 2. GURASOEN PRESTAKUNTZA 3. ABILEZIA ETA KOMUNIKAZIOA HOBETZEKO HEZIKETA-AKZIOAK
Emitzaren Adierazlea	1.Familia partaide kopurua laguntza taldeetan 2.Partaide kopurua gurasoen prestakuntzan 3.Partaide kopurua abilezia eta komunikaziorako heziketa akzioetan	
Planaren Xedea	<ul style="list-style-type: none"> Seme-alaben hazieran eta hezkuntzan familien laguntza indartu. 	
Exekuzio Egutegia	1. LAGUNTZA TALDEAK 2. GURASOEN PRESTAKUNTZA 3. ABILEZIA ETA KOMUNIKAZIOA HOBETZEKO HEZIKETA-AKZIOAK	
Aurrekontua	€	

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1 ARDATZA	HAUR, NERABE ETA FAMILIEN ZAILTASUNAK SAIHESTEKO KOMUNITATE ESKU-HARTZEA SENDOTU		
HELBURUA	1.2. ADINGABEEI, NERABEEI ETA GAZTEEI LAGUNTZA EMAN EGOERA ZAILAK KUDEATZEKO		
NEURRIAK	<p>1.2.1. Haurren babesgabezia egoerak azkar antzemateko programa.</p> <p>1.2.2. (Substantzien kontsumoa, teknologia berria, bullying...) loturiko egoera arriskutsuak era egoki batean kudeatzeko prestakuntza tailerrak, ohitura osasungarriak bultzatuz.</p> <p>1.2.3. Kalean dabiltzan 18 urtetik beherako gazteak antzeman eta arreta indartzea.</p> <p>1.2.4. 18 urtetik gorako GAZTEENTZAT GIZARTE-HEZKUNTZA programa.</p> <p>1.2.5. Haurrentzako ESKOLA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO programa, ikasketa inguruko egokiak erazteko "ikasketa mahaia".</p> <p>1.2.6. TOPAKETA ETA AISIALDI GUNEEN INGURUAN HAUSNARKETA EGI-TEKO taldeak (gazte lokalak).</p>		
Lidergoa	Sustapen-Taldea		
Eragile inplikatuak	Gizartekintza, udalerriko asialdirako zentroak, Ikastetxeak eta gizarte-erakundeak		
Akzioaren Adierazlea	Martxan jarritako akzio kopurua.	<ol style="list-style-type: none"> 1. GOIZ HAUTEMATEKO PROGRAMA 2. TREBAKUNTZA TAILERRAK 3. KALEAN HAUTEMATEKO AKZIOAK 4. GIZARTE-HEZKUNTZA PROGRAMA 18 URTE-TIK GORAKO GAZTEENTZAT 5. ESKOLA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMA 6. TOPAKETA ETA AISIALDI GUNEEN INGURUKO HAUSNARKETA TALDEA 	
Emaitzaren Adierazlea		<ol style="list-style-type: none"> 1. Hautemadako adingabeak (adingabe kopurua) 2. Partaide kopurua trebakuntza tailerretan 3. Adingabe kopurua kalean hautemandakoak 4. 18 urteko populazioa programan parte-hartzen duna 5. Eskola errendimendua hobetzeko programa jasotzen duten adingabeak 6. Partaide kopurua hausnarketa taldean 	
Planaren Xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Haurren eta familien partaidetza sustatu gizartean. • Hiriarren plangintzan barneratu Haurtzaroaren, Nerabezeroaren eta Familiaren ikuspuntua. 		
Exekuzio Egutegia		<ol style="list-style-type: none"> 1. GOIZ HAUTEMATEKO PROGRAMA 2. TREBAKUNTZA TAILERRAK 3. KALEAN HAUTEMATEKO AKZIOAK 4. GIZARTE-HEZKUNTZA PROGRAMA 18 URTE-TIK GORAKO GAZTEENTZAT 5. ESKOLA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMA 6. TOPAKETA ETA AISIALDI GUNEEN INGURUKO HAUSNARKETA TALDEA 	
Aurrekontua	€		

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1 ARDATZA	HAUR, NERABE ETA FAMILIEN ZAILTASUNAK SAHESTEKO KOMUNITATE ESKU-HARTZEA SENDOTU		
HELBURUA	1.3. HAURTZARO, NERABEZARO ETA FAMILIEN BEHARREN INGURUAN KOMUNITATEA SENTIKORTU		
NEURRIAK	<p>1.3.1. Haurtzaro, nerabezaro eta familiarekin loturiko gaietan sentsibilizazio kanpainak.</p> <p>1.3.2. ERAGILE ETA PROFESIONALEN HEZIKETA haurtzaroarekin eta familiarekin lotura dutenak.</p> <p>1.3.3. Foroa: Haur eta nerabeekin zuzenean lanean dauden eragileen lan taldea.</p>		
Lidergoa	Sustapen-Taldea		
Eragile inplikatuak	Gizartekintza, udalerriko gizarte-erakundea		
Akzioaren Adierazlea	Martxan jarritako akzio kopurua.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sentsibilizazio Kanpaina 2. Eragile eta profesionalen heziketa 3. Komunitate Foroa 	
Emaitzaren Adierazlea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kanpainaren populazio publikoa 2. Prestatutako profesional/eragile kopurua 3. Partaide kopurua komunitate foroetan 		
Planaren Xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Hiria ren plangintzan Haurtzaro, Nerabezaro eta Familia ikuspuntua barneratu. • Eragile guztiak tartean sartzeko aukera izan eta komunitatearen esku-hartzea indartu zailtasun egoerak artatu eta saihesteko. 		
Exekuzio Egutegia	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sentsibilizazio Kanpaina 2. Eragile eta profesionalen heziketa 3. Komunitate Foroa 		
Aurrekontua	€		

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

5.2.2. 2. ARDATZA. Arrisku egoeran eta babes-gabezia dauden familia eta haurtzaroaren esku-hartzea eta arreta sustatu

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

2 ARDATZA	ARRISKUAN ETA BABESGABE DAUDEN FAMILIA, HAUR ETA NERABEEN ESKU-HARTZEA ETA ARRETA SUSTATU	
HELBURUA	2.1. ARRETA ETA ESKU-HARTZEA SENDOTU FAMILIETAN	
NEURRIAK	<p>2.1.1. Familientzako INFORMAZIO, AHOLKULARITZA ETA ORIENTAZIO zerbitzua.</p> <p>2.1.2. BALORA TRESNAREN bidez, arrisku gehien duten eta adingabeak dituzten familiak ebaluatu.</p> <p>2.1.3. Familientzako ARRETA PERTSONALIZATUKO planak.</p> <p>2.1.4. Familien aniztasun tipologikoa eta kulturala kontuan hartuz, FAMILIA ESKU-HARTZE PROGRAMA BERRIKUSI ETA DEFINITU.</p> <p>2.1.5. ARAZO EKONOMIKOAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA PROGRAMAK baloratu eta sendotu.</p> <p>2.1.6. GIZARTE-AHULTASUN adierazleak dituzten familiei bideraturiko PRESTAKUNTZA jarduerak.</p>	
Lidergoa	Sustapen-Taldea	
Eragile inplikatuak	Gizartekintza	
Akzio Adierazlea	Martxan jarritako azkio kopurua.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Familientzako informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua. 2. BALORA tresnaren bidez, balorazioak. 3. Familientzako arreta personalizatuko planak. 4. Familia esku-hartze programaren gainbegiraketa familia-aniztasunaren sarrerarako (tipologia eta kultura). 5. Baliabide ekonomiko urriak dituzten familientzako programaren sendotzea. 6. Gizarte-ahultasuna dute familientzat heziketa jarduerak.
Emaita Adierazlea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Artatutako familia kopurua 2. Familia kopurua BALORA balorazioa dutenak 3. Plan kopurua arreta pertsonalizatuarekin egin direnak 4. Artatutako familia kopurua familia tipologiaren eta jatorriaren arabera 5. Familia kopurua baliabide urritasunak dituenak 6. Heziketa jardueretan parte-hartu duten ahultasun egoeran dauden familia kopurua 	
Planaren Xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta indartu eta haurtzarora eta nerabezarora bideraturik dauden zerbitzuen kalitatea hobetu. • Familiei seme-alaben hazkuntzan eta heziketan lagundu. • Eibarko haurren beharrei erantzuteko dauden baliabideak optimizatu, eta bereziki haur-ahulentzat. • Babesgabezia arin edo esanguratsuko egoeren aurrean arreta eta esku-hartzea indartu. • Haurren eta familien partaidetza sustatu gizartean. • Hiriren plagintzan Haurtzaro, Nerabezaro eta Familia ikuspuntuak barneratu. • Eragile guztiak tartean sartzeko aukera izan eta komunitatearen esku-hartzea indartu zailtasun egoerak artatu eta saihesteko. • 	
Exekuzio Egutegia	1. Familientzat informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua.	Akzio jarraia

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

2 ARDATZA	ARRISKUAN ETA BABESGABE DAUDEN FAMILIA, HAUR ETA NERABEEN ESKU-HARTZEA ETA ARRETA SUSTATU	
	2. Balorazioa, BALORA tresaren bitartez	Akzio jarraia
	3. Familientzat arreta pertsonalizatuko planak.	Akzio jarraia
	4. Familia aniztasunari sarrera emateko familian esku-hartze programaren gainbegiraketa.	1
	5. Baliabide ekonomiko urriak dituzten familientzat laguntza programa indartu.	Akzio jarraia
	6. Gizarte-ahultasuna duten familientzat heziketa jarduerak.	5
Aurrekontua	€	

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

2 ARDATZA	ARRISKUAN ETA BABESGABE DAUDEN FAMILIA, HAUR ETA NERABEEN ESKU-HARTZEA ETA ARRETA SUSTATU		
HELBURUA	2.2. ARRISKUAN EDO BABES GABEZIA ARIN EDO ESANGURATSUAN DAUDEN ADINGABEEN ARRETA SENDOTU		
NEURRIAK	<p>2.2.1. Ingurune Irekiko Esku-Hartze Programa indartu.</p> <p>2.2.2. Saileko profesionalen heziketa eman babesgabezia egoerak identifikatzeko.</p> <p>2.2.3. Genero indarkeria jasan duten biktimen seme-alabei bideraturiko esku-hartzea eta prebentzio-jarduerak indartu.</p> <p>2.2.4. Baliabide ekonomiko urriak dituzten familia ahulen seme-alaben parte-hartzea erraztu kirol eta aisialdiko jardueretan.</p>		
Lidergoa	Sustapen-Taldea		
Eragile inplikatuek	Gizartekintza		
Akzioaren Adierazlea	Martxan jarritako akzio kopurua.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ingurumen irekiko esku-hartzea 2. Saileko profesionalen heziketa 3. Seme-alabak dituzten genero indarkeriako biktimen inguruko esku-hartzea eta prebentzio-jarduerak. 4. Kirol- eta aisialdi-jardueretan adingabeen partaidetzarako laguntza. 	
Emaitzaren Adierazlea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ingurumen irekiko programan artatutako adingabe kopurua 2. Prestatutako pertsona kopurua 3. Esku-hartzea izan duten genero indarkeriako biktimen kopurua 4. Jardueretan parte-hartzeko aukera izan duten adingabe kopurua 		
Planaren Xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta indartu eta haurtzarora eta nerabezarora bideraturiko zerbitzuak hobetu. • Eibarko haurren beharrei erantzuteko dauden baliabideak optimizatu, eta berezki haur-ahulenenzat. • Babesgabezia arin edo esanguratsuko arrisku-egoeretan esku-hartzea eta arreta sustatu. 		
Exekuzio Egutegia	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ingurumen irekiko esku-hartzea 2. Saileko profesionalen heziketa 3. Seme-alabak dituzten genero indarkeriako biktimen inguruko esku-hartzea eta prebentzio-jarduerak. 4. Kirol- eta aisialdi-jardueretan adingabeen partaidetzarako laguntza. 		
Aurrekontua	€		

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

5.2.3. 3. ARDATZA. Udalerrian erabilgarri dauden baliabideen optimizazioa

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

3 ARDATZA	3. ARDATZA UDALERRIAN ERABILGARRI DAUDEN BALIABIDEAK OPTIMIZATU		
HELBURUA	3.1. ELKARLANA, KOORDINAZIOA ETA SAREKO LANAREN BITARTEZ, ZERBITZU ETA BALIABIDEEN KALITATEA HOBETU		
NEURRIAK	<p>3.1.1. Sailaren barruan barne-koordinaziorako batzordea (haurtzaroa, adikzioak, oinarriko gizarte-zerbitzuak, berdintasuna eta immigrazioa, ingurune irekiko programa eta familian esku-hartze programa).</p> <p>3.1.2. Sailen arteko koordinazio egonkorreko kanala (gizarte-zerbitzuak, gazteria, kultura) udal-kudeaketak haurtzaroa eta familiaren integrazio ikuspuntua barneratzeko.</p> <p>3.1.3. Koordinazioa ikastetxeekin.</p> <p>3.1.4. Koordinazioa osasun-zentroekin.</p> <p>3.1.5. Gizarteratzean eta laneratzean inplikaturik dauden erakunde eta gizarte-eragileekin partaidetza.</p> <p>3.1.6. Udalerriko aisialdirako eskaintza hobetzeko kultura eta gazteriaren esparruarekin elkarlana.</p> <p>3.1.7. Haurtzaro eta familia inguruan lan egiten duten erakunde eta elkarteekin elkarlana eta laguntza.</p>		
Lidergoa	Sustapen-Taldea		
Eragile inplikatuak	Gizartekintza, Udaletxea (Ekonomia, Gazteria, Kultura, Obrak, Kirola,...), aisialdian jarduten duten enpresa pribatuak, kaleko hezitzaileak, Gaztematika Zerbitzua, Ikastetxeak, osasun-zentroak, DEBEGESA, Lanbide, Eusko Jaurlaritza, EPA, Eibarko Gizarte		
Akzioaren Adierazlea	Marixan jarritako akzio kopurua.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sailaren barruko barne-koordinaziorako batzordea 2. Sailen arteko koordinaziorako kanalak 3. Koordinazioa ikastetxeekin 4. Koordinazioa osasun-zentroekin. 5. Gizarteratzean eta laneratzean inplikaturik dauden erakunde eta gizarte-eragileekin partaidetza 6. Kultura eta gazte arloekin elkarlana 7. Haurtzaro eta familia arloan lan egiten duten erakunde eta elkarteekin elkarlana 	
Emaitzaren Adierazlea		<ol style="list-style-type: none"> 1. Barne-koordinazioko batzordeak azterturiko kasu kopurua 2. Sailen arteko koordinaziorako buruturiko saio kopurua 3. Ikastetxeekin eginiko koordinazio kopurua 4. Osasun zentroekin eginiko koordinazio kopurua 5. Gizarte eta lan heziketarako ibilbideen diseinua aurrera eramateko eginiko partaidetza-saio kopurua 6. Kultura eta gazteriaren alorrekin elkarlanean buruturiko bilera kopurua 7. Erakundeei eskainitako laguntza eta kolaborazio kopurua 	

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

3 ARDATZA	3. ARDATZA UDALERRIAN ERABILGARRI DAUDEN BALIABIDEAK OPTIMIZATU
Planaren Xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta indartu eta haurtzarora eta nerabezarora bideraturiko zerbitzuen kalitatearen hobekuntza. • Eibarko haurren beharrei erantzuteko dauden balibideak optimizatu, eta bereziki haur-ahulenen beharrei. • Haurren eta familiaren parte-hartzea sustatu gizartean. • Hiria-aren plangintzan barneratu Haurtzarora, Nerabezarora eta Familiaren ikuspuntua.
Exekuzio Egutegia	1. Sailaren barruko barne-koordinaziorako batzordea
	2. Sailen arteko koordinaziorako kanalak
	3. Koordinazioa ikastetxeekin
	4. Koordinazioa osasun-zentroekin
	5. Gizarteratzean eta laneratzean inplikaturik dauden erakunde eta gizarte-eragileekin partaidetza
	6. Kultura eta gazte arloekin elkarlana
	7. Haurtzaro eta familia arloan lan egiten duten erakunde eta elkarrekin elkarlana
Aurrekontua	€

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

3 ARDATZA	3.ARDATZA UDALERRIAN ERABILGARRI DAUDEN BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA		
HELBURUA	3.2. EIBARKO HAURTZARO, NERABEZARO ETA FAMILIARI ZUZENDUTAKO ZERBITZU ETA BALIABIDEEN EZAGUTZA ZABALDU		
NEURRIAK	<p>3.2.1. Lehenengo haurtzaro, nerabezaro eta familia planaren komunikazioa eta hedapena.</p> <p>3.2.2. Eibarko haur eta familiei zuzendutako Udal-Baliabideen Gida prestatu eta zabaldu. Elaboración y difusión de una guía de recursos municipales dirigidos a la infancia y la familia en Eibar.</p> <p>3.2.3. Haurtzaro, nerabezaro eta familiaren baliabideak udaletxearen webgunean eta sare-sozialetan sartu.</p> <p>3.2.4. Gizarte-zerbitzuei buruzko informazio-kanpaina familientzako.</p>		
Lidergoa	Sustapen-Taldea		
Eragile inplikatuak	Gizartekintza, Udaletxea (Ekonomia, Gazteria, Kultura, Obrak, Kirola,...), asialdian jarduten duten enpresa pribatuak, kaleko hezitzaileak, Gaztematika Zerbitzua, Ikastetxeak, osasun-zentroak, DEBEGESA, Lanbide, Eusko Jaurlaritza, EPA, Eibarko Gizarte		
Akzioaren Adierazlea	Martxan jarritako akzio kopurua.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Haurtzaro, nerabezaro eta familia I Planaren komunikazioa eta hedapena. 2. Baliabideen gida 3. Web orrian eta sare-sozialetan barneratu. 4. Informazio-kanpaina 	
Emaizaren Adierazlea		<ol style="list-style-type: none"> 1. Planaren bidalketa eta deskarga kopurua 2. Baliabideen gidaren bidalketa kopurua 3. Webgune eta sare-sozialetan inpaktu kopurua 4. Kanpainaren populazio publikoa 	
Planaren Xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta indartu eta haurtzarora eta nerabazarora bideratutako zerbitzuen kalitatea hobetu. • Eibarko haurren beharrei erantzuteko dauden baliabideak optimizatu, eta bereziki haur-ahulenen beharrei. • Hirriaren plangintzan barneratu Haurtzarora, Nerabezarora eta Familiaren ikuspuntua. 		
Exekuzio Egutegia		<ol style="list-style-type: none"> 1. Haurtzaro, nerabezaro eta familia I Planaren komunikazioa eta hedapena. 2. Baliabideen gida 3. Web orrian eta sare-sozialetan barneratu. 4. Informazio-kanpaina 	
Aurrekontua	€		

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

3 ARDATZA	3. ARDATZA UDALERRIAN ERABILGARRI DAUDEN BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA		
HELBURUA	3.3. HAURTZARO, NERABEZARO ETA FAMILIA PLANAREN EBALUAZIOA		
NEURRIAK	3.3.1. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko batzordea sortu. 3.3.2. Planaren urteroko ebaluazio txostenak egin.		
Lidergoa	Sustapen-Taldea		
Eragile inplikatuak	Gizartekintza		
Akzioaren Adierazlea	Martxan jarritako akzio kopurua.	1. Planaren jarraipen eta ebaluaziorako batzordea	
		2. Planaren urteroko ebaluazio txostenak	
Emaitzaren Adierazlea	1. Planaren jarraipen eta ebaluaziorako batzordearen bilera kopurua		
	2. Planaren urteroko ebaluazio txosten kopurua		
Planaren Xedea	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta indartu eta haurtzarora eta nerabezarora bideratutako zerbitzuen kalitatea hobetu. • Eibarko haurren beharrei erantzuteko dauden balibideak optimizatu, eta bereziki haur-ahulenen beharrei. • Hiriaaren plangintzan barneratu Haurtzarora, Nerabezarora eta Familiaren ikuspuntua. Fortalecer la atención y mejorar la calidad de los servicios dirigidos a la infancia y adolescencia. 		
Exekuzio Egutegia	1. Planaren jarraipen eta ebaluaziorako batzordea		
	2. Planaren urteroko ebaluazio txostenak		
Aurrekontua	€		

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

5.3. Jarduera Proposamenen xehetasunak

5.3.1. 1 Ardatza: Prebetzioa. Jarduera-lerroa 1.1. Haur eta gazteen zaintzan, arretan eta hezkuntzan familiei laguntza eman

1.1.1. Guraso eta tutoreentzat laguntza-taldeak.

DEFINIZIOA: Guraso edo tutoreei bideraturiko laguntza-taldeak dira, profesionalen laguntzaz, periodikoki egiten diren bileretan euren seme-alaben heziketa prozesuan sortzen diren zailtasunak kontrastatzeko. Profesionalen orientazioaz gain, garrantzitsua da taldeko gainerako kideekin elkarbanatzen den esperientzia eta jasotako elkarrekiko babesa. Familia kopuru handiago batera iristea lortzen da formatu honen bitartez eta ezaugarri desberdinak dituzten familiak elkartzeko dira, larria izatea beharrezkoa ez izanik.

EDUKIA: Laguntza-taldeen edukia kideek plazaratzen dituzten beharren baitan egongo da, baina seme-alaben heziketarekin loturik egongo da, eta baita adingabe eta gurasoen arteko harreman eta komunikazioarekin. Neurri honen azken helburua familiak eta tutoreak laguntzea da euren seme-alaben hazkuntzan eta heziketan.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza, Gurasoak Martxan eta BAIKARA (Gipuzkoako Gurasoen Federazioa) bezalako bestelako organismoen laguntzarekin edo udalerriko gizarte-erakundeekin.

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	Akzioaren adieraz- lea	URTEROKO AKZIO KOPURUA				GUZTIRA PLAN	AURREKON- TUA
		2018	2019	2020	2021		
1.1.1. Laguntza-taldeak	Talde kopurua	2	2	2	2	8	

EMAITZA:

Emaitzaren Adieraz- lea	Familia partaide kopurua laguntza-taldeetan	
------------------------------------	---	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1.1.2. (Substantzien kontsumoa, teknologia berriak, bullying...) loturiko egoera arriskutsuak antzemateko eta saihesteko gurasoentzako prestakuntza tailerrak, eta baita ohitura osasungarriak bultzatzeko.

DEFINIZIOA: Gurasoen trebakuntzarako tailerra arrisku-egoerak edo -jokaerak antzeman eta ekiditeko, eta ohitura osasungarriak bereganatzeko.

EDUKIA: Gai desberdinen inguruan aita/amei zuzendutako heziketa jarduerak dira:

- Teknologia berriak.
- Menpekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoa.
- Bullying-a y ciberbullying-a.
- Sare-sozialen erabileraren arriskuak.
- Osasunareztat positiboak diren ohituren bereganatzea.
- ...

Heziketa-jarduera hauen azken helburua familiak eta turoteak laguntzea da euren seme-alaben hazkuntzan eta heziketan.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza, Gurasoak Martxan-en laguntzarekin eta BAIKARA (Gipuzkoako Gurasoen Federazioa), AMPA eta BERRITZEGUNE-ren ikastaroak, eta interesgarriak diren bestelako ikastaroak eskaintzen dituzten erakunde publiko (Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Ertzaintza,...) edo pribatuak.

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	Akzioaren adieraz- lea	URTEROKO AKZIO KOPURUA				GUZTIRA PLAN	AURREKON- TUA
		2018	2019	2020	2021		
1.1.2. Gurasoen prestakuntzarako tailerrak	Tailer kopurua	2	2	2	2	8	

EMAITZA:

Emaitzaren Adieraz- lea	Partaide kopurua gurasoen prestakutzan	
------------------------------------	--	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1.1.3. Prestakuntza jarduerak gurasoen trebetasunak hobetzeko eta guraso-haurren arteko komunikazio eta harremanak hobetzeko.

DEFINIZIOA: Familiekin burutzen diren heziketa-jarduerak seme-alaba eta guraso edo tutoreen arteko harremana eta komunikazioa laguntzeko.

EDUKIA: Aita-amen partaidetza sustatzea helburu duen ekintza da, garapen momentu desberdinetan euren trebetasunak hobetzeko akzio eta programak eginez. Heziketa-saioak, izaera orokorrekoak (gurasotasun-positiboak) zein selektiboagoak, ahultasun-adierazlea duten familiei zuzenduak (familia gurasobakarrak, gizarte-sare edo sare-familiarrik ez dutenak). Ondorengo edukia duten akzio desberdinak garatu daitezke:

- Aitatasun eta amatasun positiboa
- Autoritatea eta diziplina familia-bizitzan
- Mugak jartzeak duen garrantzia
- Familia garapen-inguru modura haurtzaroan
- Norgehiagoka emozionalak eta familia

Gainera, informazio-saioak antolatu ahal izango dira aita/amei edo tutoreei zuzenduak udalerrian erabilgarri dauden aholkularitza, informazio eta prebentzio baliabideen inguruan berri emateko seme-alaben heziketan ager daitezkeen zailtasunen aurrean, eta gogoeta sustatzeko guraso eta seme-alaben arteko harremanaren eta komunikazioaren inguruan.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza, Gurasoak Martxan-en laguntzarekin eta BAIKARA (Gipuzkoako Gurasoen Federazioa), AMPA eta BERRITZEGUNE-ren ikastaroak, eta interesgarriak diren bestelako ikastaroak eskaintzen dituzten erakunde publiko (Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Ertzaintza,...) edo pribatuak.

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	Akzioaren adierazlea	URTEROKO AKZIO KOPURUA				GUZTIRA PLAN	AURREKONTUA
		2018	2019	2020	2021		
1.1.3. Prestakuntza jarduerak guraso-haurren arteko komunikazio eta harremanak hobetzeko.	Heziketa saio kopurua	1	1	1	1	4	

EMAITZA:

Emaitzaren adierazlea	Parte-hartzaile kopurua trebetasun- eta komunikazio-heziketa saioetan	
------------------------------	---	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

5.3.2. 1 Ardatza: Prebentzioa. Jarduera-lerroa 1.2. Haur, nerabe eta gazteei heldutze-prozesuan lagundu

1.2.1. Haurren babesgabezia egoerak azkar hautemateko programa.

DEFINIZIOA: Haurren eta nerabeen babesgabezia egoerak azkar hautemateko programa zabal baten diseinua.

EDUKIA: Derrigorrezko hezkuntzan (lehen hezkuntzatik aurrera, 6 urteik aurrera) eskola-absentismoaren berri emateko dagoen prozedura gainbegiratu, eta eskola-absentismoaren inguruko informazioaren trukea haur-hezkuntzara luzatu (0 eta 6 urte bitartean). Baloratu egingo da Udalerriko Absentismo Behatoki bat sortzeko aukera.

Halaber, erakunde publikoen artean dauden protokoloen berrikuspena egitea planteatu daiteke (pediatria zerbitzuak edota haurzaindegia, Ertzaintza,...) edo bestelako zenbait akzio burutu daitezke haurrenganako tratu txar egoerak, pobrezia edo haur eta gazteen babesgabezia egoerak azkar hautemateko.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza ikastetxeen eta bestelako erakunde publikoen laguntzarekin (haurzaindegia, pediatria zerbitzuak, ertzaintza).

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adierazlea	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKONTUA
1.2.1. Azkar hautemateko programa	Diseinatutako programa kopurua	1		1		2	

EMAITZA:

Emaitzaren adierazlea	Hautemandako adingabe kopurua	
-----------------------	-------------------------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1.2.2. (Substantzien kontsumoa, teknologia berriak, bullying, berdinen arteko harreman zailak...) loturiko egoera arriskuak era egoki batean kudeatzeko prestakuntza tailerrak, ohitura osasungarriak bultzatuz.

DEFINIZIOA: Biztanleria adingabeari bideraturik dauden trebakuntza-tailerrak egoera edo jarrera arriskuak saihesteko. Gainera, haur eta nerabeentzako heziketa programak garatzeko interesa azaltzen da gaitasun sozialak, autobabeseakoak eta erreakziozkoak bereganatzeko eta osasunarentzat onuragarriak diren ohiturak lortzeko.

EDUKIA: Haurren eta nerabeen heziketa-prozesuari laguntza eman, ikasgelatik haratago, adingabeei zuzendurik dauden hezkuntza-akzioen bitartez gai desberdinen inguruan:

- Menpekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoa.
- Bullying-a eta cyberbullying-a.
- Sare-sozialen erabileraren arriskuak.
- Inguruko indarkeria, tratu txar edota gehiegikerien identifikazioa.
- Gaitasun sozialak, autobabeseakoak eta erreakziozkoak: kompetentzia emozionalak, nortasunaren garapena, lagun arteko harremanak, komunikazioa eta liskarren ebazpena,...
- Osasunarentzat onuragarriak diren ohituren lorpena.
- Familia eta kultura aniztasuna eta gizarte-kohesioa.

Helburutzat jartzen da adinez txikiko populazioari laguntza eskaintzea heldutze prozesuan eta berdinen arteko harremanaren eta komunikazioaren hobekuntzan, arrisku-egoeren hautematea eta prebentzioa sustatuz, eta, gainera, gazteriaren artean bizitza-ohitura osasungarriak indartuz.

Ikastetxeetan adingabeei bideraturik dauden jarduera prebentiboak areagotzea proposatzen da. Halaber, erraztu egingo zaie haur eta nerabeei euren interes eta beharretara egokiturik dauden erakusketa, lehiaketa, jarduera eta material interaktiboetarako sarbidea.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza ikastetxeen eta bestelako erakunde publiko (Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Ertzaintza,...) edo pribatuen laguntzarekin, interesgarriak diren ikastaroak eskaintzen dituztenak.

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	Akzioaren adieraz- lea	URTEROKO AKZIO KOPURUA				GUZTIRA PLAN	AURREKON- TUA
		2018	2019	2020	2021		
1.2.2. Trebakuntza tailerrak	Tailer kopurua	2	2	2	2	8	

EMAITZA:

Emaitzaren adieraz- lea	Parte-hartzaile kopurua	
----------------------------	-------------------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1.2.3. Kalean dabilzan 18 urtez azpiko gazteen hautematea eta arreta indartu.

DEFINIZIOA: Ingurune irekiko programaren alorrean, gizarte-hezitzaileen kaleko jarduera indartzeko interesa plazaratzen da arrisku egoeran dauden 18 urtez azpiko adingabeen hautemateari ekiteko.

EDUKIA: Neurri nagusia ingurune irekiko programa hedatzea izango litzake eta gizarte-hezitzaileen kaleko jardueraren aldeko apustua egitea gazteengana bideratzeko, eta jarduera osagarriak antolatu neskei eta mutileri lotzeko tresna modura eta bestelako zenbait alorretan lan egin, besteak beste, kontsumoa, berdinaren arteko harremanak,...

Nerabeei heldutasunerako bidean laguntza eskaintzea bilatzen da zenbait aspektutan lan eginez: erabaki-hartzerako tresnez hornituz, egoera desberdinen prebentzioan nerabea mugitzen den inguruetan jardunez eta jardueren desberdintasuna generoz, adin desberdintasunaren eta jatorri kulturalaren arabera.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza, ingurune irekiko zerbitzua eskaintzen duten enpresen laguntzarekin eta udalerrian gazteentzat dauden baliabideekin (haurtxokoa, gaztelekua).

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adierazlea	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKONTUA
1.2.3. Kaleko hautematea eta arreta indartu 18 urtez azpiko adingabeei	Aurrera eramandiren hautemate akzio kopurua	3	3	3	3	12	

EMAITZA:

Emaitzaren adierazlea

Kalean antzeman diren adingabeen kopurua

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1.2.4. 18 urtetik gorako gazteentzat gizarte-hezkuntza programa.

DEFINIZIOA: Udalerrian aisialdirako eremu propioa duten 18 urteko gazteentzat gizarte-hezkuntza programaren diseinua.

EDUKIA: Zehazki, 18 urtetik gorako gazteen jarrera arriskutsuak antzemateko akzioak abian jartzen dira, aisialdirako lokal propioa duten gazteei ereduak pertsona hezitzaile bat eskura jartzeko helburuarekin, azken hau gazteen lokaletara hurbildu eta ondoan izan dadin (eta laguntzeko) gazteen heldutze prozesuan.

Gizarte-hezitzaile figura honek lan egingo luke aisialdiko eremu hauetan elkarturik dauden gazteei egoera zailen aurrean sentsibilizatuz, kontrastatuz eta lagunduz, euren ezaugarriak identifikatuz: ea adineko ohiko behar orokorrak dituzten edo zailtasun sozial handiagoak dituzten, zerbait espezializatuagoa behar izango balitz.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza, gizarte-hezkuntzan espezializaturik dauden erakundeak, organizazio sozialak eta Eibarko biztanleria gaztea.

AKZIO KOURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adierazlea	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKONTUA
1.2.4. 18 urtetik gorako gazteentzat gizarte-hezkuntza programa	Diseinatu-tako programa kopurua	1		1		2	

EMAITZA:

Emaitzaren adierazlea	Parte hartu duen 18 urteko populazioa
------------------------------	---------------------------------------

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1.2.5. Haurtzaroko eskola errendimenduaren hobekuntzarako programa, etxeko ikasketarako inguru egokiak ahalbidetuz “ikasketa mahaia”.

DEFINIZIOA: Haurtzaroko eskola errendimendua hobetzeko programa bat diseinatzeko aukera proposatzen da, Eibarko etxebizitzetan ikasketarako eremu egoki bat ahalbidetuz. Progama hau “ikasketa mahaia” modura izendatu daiteke.

EDUKIA: Adingabeen eskolatzea bermatu eta laguntzea bilatzen da Eibarko umeei ikasketa eremu egoki bat izan dezaten bermatuz. Programa honen inguruan, sarrera baxuak dituzten familiei liburuen eta eskola-materialaren erosketan laguntza emateko beharra ere baloratuko da eta gizarte-zailtasun egoeran dauden haurren eskola-errefortzua sustatzeko tailerrak antolatu ahal izango dira, trebetasun sozialak garatuz eta eskola-porrota saihestuz.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza, ikastetxeen laguntzarekin.

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adieraz- lea	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKON- TUA
1.2.5. Eskola errendimen- dua hobetzeko programa	Diseinatu- tako pro- grama kopurua	1		1		2	

EMAITZA:

Emaitzaren adieraz- lea	Adingabe onuradunak	
------------------------------------	---------------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1.2.6. Topaketa eta Aisialdirako eremuen inguruan hausnarketa taldea (gazteen lokalak).

DEFINIZIOA: Ekintza-talde bat sortzen da topaketa eta aisialdirako eremuen inguruan hausnartzeko eta Eibarko gazteen lokalen esku-hartzearen estrategia diseinatzeko.

EDUKIA: Lanerako mahai/talde bat sortu gazteen aisialdi eta topaketa eremuen esku-hartzerako estrategia diseinatzeko ardura izango duena. Lehenengo pausua lantalde mixto bat osatzea izango da (eragile publikoak, pribatuak, gazteak, gurasoak eta biztanleria orokorrean) proiektuaren lidergoa eramateaz arduratuko dena, ondoren, zehaztu eta garatzeko. Garrantzi handikotzat jotzen da proiektuan biztanleria gaztearen partaidetza sustatzea.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza, udalerriko gazteentzako baliabideak (hautxokoa, gaztelekua) eta Eibarko biztanleria gaztea.

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adieraz- lea	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKON- TUA
1.2.6. Topaketa eta Aisialdirako eremuen inguruan hausnarketa taldea	Hausnarketa taldearen saio kopurua	2	2	2	2	8	

EMAITZA:

Emaitzaren adieraz- lea	Partaide kopurua hausnarketa taldean	
------------------------------------	--------------------------------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

5.3.3. 1 Ardatza: Prebentzioa. Jarduera-lerroa 1.3. Haurtzaro, nerabezaro eta familien beharren inguruan komunitatea sentikortu

1.3.1. Haurtzaroarekin eta familiarekin loturiko gaietan biztanleriarentzat, oro har, sentikortze kanpainak antolatu.

DEFINIZIOA: Sentikortze, informazio eta hedapenerako prebentzio-kanpainak egitea proposatzen da hiritarrei, familiei, haurrei, nerabeei eta kolektibo espezifikoari zuzenduak haurtzaroari eta nerabezaroari loturiko gaien inguruan.

EDUKIA:

Haurtzaroko eta familien eskubide eta erantzukizunen defentsaren eta sustapenaren aldeko kanpainak antolatu ahalko lirateke, eta baita biztanleriarentzat orokorrean zuzenduriko prebentzio-kanpainak ere sexu-abusuen aurka, tratu txar egoeren hautematerako, tratu txarrak jaso dituzten emakumeentzako eta euren seme-alabentzat... Iritzi publikoan haurtzaroari agerikotasuna ematea bilatzen da gizarte-ordezkaritza positibo eta konstruktibo baten bidez euren arazoengatik inguruan sentikortuz (genero indarkeriaren biktimen seme-alabak, menpekotasun arazoak dituzten gurasoen haurrak, familia-sarerik ez duten adingabeak...). Prebentzio-kanpaina hauek aurrera eramango dira bitarteko desberdinak erabiliz: argitalpenak, hedabideetan agerpenak, ekitaldiak, IKTa, eta abar. Haurren Eskubideen aldeko egun Unibertsalean eta Familiaren egun Internazionalan ekintza espezifikoak garatzeko aukera aztertzen da.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza, Udaletxeko beste zenbait esparruren laguntzarekin eta udalerriko gizarte-erakundeekin.

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	Akzioaren adierazlea	URTEROKO AKZIO KOPURUA				GUZTIRA PLAN	AURREKONTUA
		2018	2019	2020	2021		
1.3.1. Prebentzio kanpainak	Prebentzio kanpaina kopurua	2	2	2	2	8	

EMAITZA:

Emaitzaren adierazlea	Publiko populazioa	
-----------------------	--------------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1.3.2. Haurtzaroarekin eta familiarekin lotura daukaten profesionalen prestakuntza.

DEFINIZIOA: Hurrekin eta familiekin harremanetan dauden profesionalen prestakuntza ikastaroak, hauteman diren arazo desberdinei aurre egiteko helburuarekin (kasu praktikook, martxan dauden programak...).

EDUKIA: Adingabeekin lan egiten duten profesionalen prestakuntza ematen zaie (ikastetxeak, aisialdirako eta kirol-zentroak, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak,...) arrisku egoeren hautematea hobetzeko helburuarekin.

Alde honetatik, beharrezkotzat jotzen da profesionalen formakuntza indartzea euren esku-hartzean barneraturik gera daitezten familia eta kultura aniztasunak Eibarren izan duen aldaketa.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza eta beste erakunde publikoak (Eusko Jaurlaritzak, Osakidetza, Ertzaintza,...) edo pribatuak ikastaro interesgarriak eskaintzen dituztenak.

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	Akzioaren adieraz- lea	URTEROKO AKZIO KOPURUA				GUZTIRA PLAN	AURREKON- TUA
		2018	2019	2020	2021		
1.3.2. Profesional eta eragi- leen prestakuntza	Tailer kopurua	2	2	2	2	8	

EMAITZA:

Emaitzaren adieraz- lea	Prestatutako profesional/eragile kopurua	
------------------------------------	--	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

1.3.3. Foroa: Haur eta nerabeekin zuzenean lanean dauden eragileen lantaldea.

DEFINIZIOA: Lanerako eremu partekatuen sorrera, haurrekin eta nerabeekin zuzenean lan egiten duten komunitateko eragileen lantaldearen bitartez.

EDUKIA: Eibarko biztanlerian topaketa eta lan eremu partekatuen erabilpena erraztea bilatzen da haurtzaroko, nerabezaroko eta familiako behar sozialak hautemateko.

Jarraian, Eibarren sustatu beharreko lantalde partekaturako saiakera bat proposatzen da:

- Komunitateko eragileen foroa:
 - Haurtzaroaren, nerabezaroaren, gazteriaren eta familien beharren analisia.
 - Baterako jardueren antolaketa.
 - Baliabideen beharren identifikazioa antzemandako zenbait egoerei erantzuteko (Adibidez: Gazteen lokalen arauketa: Gazteen lokalen esku-hartze programa).
 - (...)
- Nerabeen arretarekin loturiko komunitateko eragileen lantaldea
 - Estrategien diseinua ereduak helduekin hezkuntza-harremanak ezartzea lor dadin.
 - Zerbitzu bakoitzeko hezkuntza planteamenduak partekatu, amankomunak diren helburuak ezarri eta baterako jardueren proposamena egin.
 - Nerabezarora bideraturik dauden zerbitzuen hazkuntzarako proposamena, beharrezkoa izatekotan (Adibidez: gaztelekuak).
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko Gaztematikarekin lana

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza, udalerriko erakunde eta organizazio sozialak eta biztanleria orokorrean.

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adieraz- lea	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKON- TUA
1.3.3. Foro komunitarioak	Foro kopurua	1	1	1	1	4	

EMAITZA:

Emaitzaren adieraz- lea	Parte-hartzaile kopurua	
----------------------------	-------------------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

5.3.4. 2 Ardatza: Esku-hartzea. Jarduera-lerroa 2.1. Familekin arreta eta esku-hartzea indartu

2.1.1. Familientzako informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua.

DEFINIZIOA: Eibarko familien eskura jarri gizarte-zerbitzuen oinarritzko informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua.

EDUKIA: Eibarko familiei gizarte-zerbitzu publikoetarako sarbidea bermatzean oinarritzen da eta informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua eskaintzean erabilgarri dauden baliabide, zerbitzu eta prestazioen inguruan euren behar-sozialei eta arazo partikularrei erantzuteko.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adierazlea	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKOTUA
2.1.1. Familientzako informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua.	Artatutako familia kopurua	25	25	25	25	100	

EMAITZA:

Emaitzaren adierazlea	Artatutako familia kopurua	
-----------------------	----------------------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

2.1.2. Adingabeak bere gain dituzten familia ahulenen balorazioa BALORA tresnaren bitartez.

DEFINIZIOA: BALORA tresna aplikatu adingabeak bere gain dituzten familia ahulenei, arrisku egoeren larritasuna neurtzeko udalerriko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuek erabiltzen duten tresna haurren eta nerabeen arreta eta babeserako.

EDUKIA: Adingabeak bere gain dituzten familia ahulenen egoerak sakonki baloratzean oinarritzen da. Horretarako, BALORA tresnaren bitartez adingabeak bere gain dituzten familia ahulena baloratzera proposatzen da arrisku-egoeren larritasuna zehazteko helburuarekin, eta, horrela, ondoren, diagnostiko sozial horri egokituriko planak eta ekimenak ezartzeko bidea irekiz.

Ahal den neurrian, beste mota bateko informazioarekin osatzen saiatuko da BALORA tresnaren bitartez buruturiko balorazioa. Informazio osagarria, ikuspuntu sistematiko batetik, familia, haur edo nerabeengandik hurbilago dauden profesionalen behaketa batetik eratorria egon daiteke, hauen harremanari eta euren eguneroko testuinguruari dagokionean. Horrela, bizitzen dituzten testuinguru desberdinen arteko erlazioa analizatuko ahal izango da errealitatearen irakurketa integralago bat egitea ahalbidetuz, eta aztertutako egoeran baliabideen eta zerbitzuen esku-hartzeak izan duen intzidentzia analizatuz.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	Akzioaren adierazlea	URTEROKO AKZIO KOPURUA				GUZTIRA PLAN	AURREKONTUA
		2018	2019	2020	2021		
2.1.2.BALORA tresnaren bitartez buruturiko balorazioa	Baloratu-tako familia kopurua	10	10	10	10	40	

EMAITZA:

Emaitzaren adierazlea	Familia kopurua	
-----------------------	-----------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

2.1.3. Familientzako arreta pertsonalizatuko plana.

DEFINIZIOA: Arreta pertsonalizatuko planak egin familia ahulenekin eta BALORA tresnaren bitartez baloratu izan direnekin.

EDUKIA:

BALORA tresnaren bitartez familia egoeraren ebaluazioa burutu ondoren, familiarekin egin beharreko esku-hartzea antolatuko da, beti ere, kontuan izanik bere gaitasunak eta beharrak eta bere karakterizazio tipologikoa eta kulturala.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adieraz- lea	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKO- TUA
2.1.3. Arreta pertsonali- zatuko planak	Arreta pertsonali- zatuko plana du- ten fami- lia kopu- ruea	10	10	10	10	40	

EMAITZA:

Emaitzaren adieraz- lea	Arreta pertsonalizatuko plan kopurua	
------------------------------------	--------------------------------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

2.1.4. Familia esku-hartzerako planaren berrikuspena eta berfinkapena, familia tipologia eta jatorri aniztasunaren perspektiba barneratuz.

DEFINIZIOA: Indarrean dagoen Eibarko familia esku-hartzerako planaren berrikuspena eta berfinkapena egin, familia tipologiaren aniztasuna eta kultura aniztasunaren perspektiba barneratuz.

EDUKIA: Familien esku-hartzerako oraingo ereduaren berrikuspenean oinarritzen da jatorri aniztasunera, hezkuntzan dagoen eredu kultural desberdinetara eta familia tipologia aniztasunera (gurasobakarrak, berriz elkartuak,...) egokitzeko. Esku-hartzeko beharra daukaten familiei, eta bereziki, familia ahulenei eta harremanetarako zailtasunak dituztenei ondorengo zerbitzuak eskaintzea bilatuko da:

- Babesgabezia egoeran egon daitezkeen 18 urtez azpiko adingabeak dituzten familiei gizarte-hezkuntza arreta edota laguntza psikologikoa.
- Baliabide pertsonalen, familiarren,... mobilizazioa, garapen pertsonala eta familiako eta komunitateko elkarbizitza ahalbidetzen duten gaitasunen lorpen eta garapenerako (jakintza, jarraibideak, gaitasunak,...).
- Sentikortasuna eta sareko-lana gainerako gizarte-zerbitzu normalizatuekin (hezkuntzakoak, osasunekoak...).

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza eta familiaren esku-hartzea aurrera eramateko ardura daukaten erakundeak.

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adierazlea	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKONTUA
2.1.4. Familia esku-hartzerako planaren berrikuspena eta berfinkapena	Berrikusitako programa kopurua	1		1		2	

EMAITZA:

Emaitzaren adierazlea	Artatutako familia kopurua	
------------------------------	----------------------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

2.1.5. Baliabide ekonomiko eskasak dituzten familiei laguntza emateko programen balorazioa eta errefortzua.

DEFINIZIOA: Eibarko udalerrian baliabide ekonomiko eskasak dituzten familiei laguntza emateko programen balorazioa eta errefortzua.

EDUKIA:

Eibarren pobrezia egoeran edo zailtasun ekonomikoak dituzten familia kopuru anitzaren aurrean, udalerriko oinarrizko baliabideak eta erabilgarri dauden prestazio ekonomikoak berrikustea planteatzen da, azken hauen egokitasuna aztertu edo Eibarko familien oinarrizko gizarte-beharrak asetzeko baliabideen errefortzua beharrezkoa den ondorioztatzeko. Beharrak ondorengo gaietan izango lirateke:

- Baliabide ekonomikoen beharra
- Baliabideen inguruko informazioaren beharra
- Gaitasun-sozialen hobekuntzarako beharra
- Familiaren kudeaketa eta antolaketa hobetzeko beharra

Programa, baliabide edo laguntza bereziak sortzeko aukera aztertuko da familia ahulenei euren seme-alaben zaintzan laguntzeko helburuarekin.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adierazlea	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKONTUA
2.1.5. Baliabide ekonomiko eskasak dituzten familiei laguntza emateko programen balorazioa eta errefortzua	Berrikusitako programa kopurua		1		1	2	

EMAITZA:

Emaitzaren adierazlea	Baliabide eskasia zuten lagundutako familia kopurua	
------------------------------	---	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK



5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

2.1.6. Gizarte-ahulezian dauden familiei bideraturiko heziketa-jarduerak.

DEFINIZIOA: Gizarte-ahulezia adierazleak dituzten familiei bideraturiko heziketa-jarduera espezifikoen lanketa.

EDUKIA: Heziketa-jarduerak diseinatuko dira jarduera hauek bideraturik dauden taldeen ezaugarrien, beharren eta errealitate sozialen arabera.

Kontuan hartuko dira, bereziki, gurasoen prestakuntzarako ikastaro orokorretan parte hartzen ez duten familiak eta bestelako heziketa eredu batzuk finkatzea gomendagarria izango litzatekeen familiak, udalerriko erakunde eta organizazio sozialen laguntzarekin.

ANTOLATZAILEAK:

Gizartekintza, udalerriko erakunde sozialen laguntzarekin.

AKZIO KOPURUA ETA EGUTEGIA:

JARDUERA	URTEROKO AKZIO KOPURUA						
	Akzioaren adierazleak	2018	2019	2020	2021	GUZTIRA PLAN	AURREKONTUA
2.1.6. Gizarte-ahulezian dauden familiei bideraturiko heziketa-jarduerak.	Heziketa-jarduera kopurua	1	1	1	1	4	

EMAITZA:

Emaitzaren adierazleak	Familia ahul kopurua	
------------------------	----------------------	--

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK, JARDUERA-LERROAK ETA AKZIOAK

5.3.5. 2 Ardatza: Esku-hartzea. Jarduera-lerroa 2.2. Arriskuan eta babesgabezia arinean edo esanguratsuan dauden adingabeen arreta sendotu

2.2.1. Ingurune irekiko hezibide programaren sendotzea.

DEFINIZIOA: Ingurune irekiko hezibide programa sendotu Eibarren, arriskuan eta babesgabezia arinean edo esanguratsuan dauden haur eta nerabeen babesa eta sustapena bermatzeko helburuarekin (udalerriarren kompetentzia), bereziki adingabe ahulenen gain jarritz arreta.

EDUKIA: Ingurune irekiko programa sendotzea planteatzen da. Ingurune irekiko hezibide programa honetan Eibarko Gizarte-Zerbitzuen sailak jarduten du 1997. urtetik, bere helburu nagusia gazteak beharrezkoak diren tresnez hornitzea izanik, jakintza eta kompetentziak bereganatzeko eta modu egonkorrean parte-hartzeko baliabideetan, zerbitzuetan eta testuinguruetan (eskola, familia, komunitateko baliabideak, berdinen arteko taldeak,...).

Programa hau zailtasun arin edo esanguratsuko adierazleren bat daukaten adingabeei zuzendurik dago, bai arlo pertsonalean, familiarrean, eskolan edo gizartearen zein okupazioan. Programaren helburu orokorra gazteak tresnez hornitzea da jakintza eta kompetentziak bereganatu ditzaten eta egonkorki parte hartu dezaten udalerriko balibide eta zerbitzuetan, garapen pertsonalean lagunduz. Programa berrikusi behar da kontuan izanik Eibarko udalerrian biztanleria adingabeak duen kultura aniztasuna.

Programa honen bitartez, ondorengo helburual lortzen jarraitzea bilatzen da:

- Gazteei euren garapen prozesuan lagundu bizitzako proiektu positiboak eraikiz.
- Laguntza eskaini gizarteko egokitzapen ezak saihesteko.
